

**MENDE-HASIERAKO EUSKALGINTZA:
URRATSAK ETA HUTSUNEAK**

MIKEL ZALBIDE
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Euskara Zerbitzua
VITORIA-GASTEIZ

KOMUNIKAZIOA

Azken urteotan behin baino gehiagotan entzun behar izan dugu euskaltzaleok, euskaltzale gazte edo gazte-antzekook bereziki, gure aurrekoen esan-eginak ez ditugula behar bezain aintzakotzat hartzen (1). Eta, ondorioz, dagoeneko ibiliak genituen bideetan barrena abiatu ohi garela, behar baino sarriago, euskalgintzaren gurpilari berriro hutsetik eraginaz.

Ez dirudi arrazoipide hori guztiz okerra denik (2), egiaren zati bat baizik adierazten ez badu ere. "Historiarik gabeko herri" bat izateaz lotsatu adinbat edo gehiago harrotu egiten den euskaldungoak baduke, nolana ere, bere aurrekoekiko ezaguera-lokarriak sendotzen ahalegintzeko premiarik, eta are premia larririk. Aldi joanen berekabuzko ikuspegi sendorik nekez osatu eta gizarteratuko du Euskal herriak bestek, neurri on batean bere izaera etnokulturalaren ezaguerarik ez duen beste hainbatek, ezarritako premisen mende eta haien esanetara dagoeno. Historiak xede askotxotarako balio izan dezakeela honez gero ikasi samarrak-edo gauden euskaldunok gauza bat eskatu behar genioke, nere irudiz, geure historiari: perspektiba. Eta hori nekez lortuko dugu, bistan denez, era bateko edo besteko premisa ideologiko ximple bezain itsuetan erosoegi estekaturik gauden artean. Gure herriak azkenaldi honetan bizi dituen egonezin, eten-urratze eta sumindurak ere esango nuke, gehiegi esatea ez bada, halako neurri batean perspektiba horren faltaz sortuak direla; eta, ondorioz, damu-aitorpenean murgildu beharrik gabe ere bagenuke alor horretan zer konpon eta zer zuzen.

Perspektiba eskuratzeko ahalegin horretan inola ere alboratu ezina dugu, besterik ez bada ere denborazko hurbiltasunak berekin izan ohi duen lokarriaren sendoagatik, mende honen hasieraldiko jarduna: demagun, urte-mugarriak jartzeagatik, 1896-98 ingurutik 1937ra arteko berrogeizaroa (3). Ordurarteko esan-eginekin alderatuz urtealdi haietako euskalgintzak berritasun-aire nabarmenak ekarri zituen berekin. Gauza aski ezaguna da hori, etxeo zein kanpokoentzat. Berritasun horren zer-nolakoak gure artean behar baino gutiago aztertu direla ere kontu jakina da, bestalde: hutsune hori konpontzeko azkenaldi honetan pauso sendorik ematen hasi den arren (4), ez dago ahazterik hartarako jakiniturriak berak ere oraintsu arte bildu eta plazaratu gabe izan ditugula. Ondoren doazen ohar-zirriborro hauek axialgaineko bide-urratze bat baizik ez dira, azterlan sakon eta gogoeta pausatuago baten beharra iradoki nahi luketenak.

XIX. mendeak aldaketa sakonak eraginak zituen Euskal herriaren osakeran: bai bere transformazio politiko-operatiboengatik (foru-aginpidetaren galera izan zelarik guzti horien buru), bai gizarte-molde tradizionalak bere oinarri ekonoteknikoetan jasandako antzaldatzeagatik eta bai bere etnokulturazko aldaketa nabarmenengatik. Mende horren azken laurdenean batez ere Bizkaiak (baina ez Bizkaiak soilik) bere euskarri eta prozedura ekonoteknikoetan izandako ziztu biziko transformazio horrek, bereziki, areagotu egin zuen euskal gizartearen dislokazio edo etena: arazo berri, latz eta ugariak sortu zituen aldaketa sakon horrek, baina baita itxaropen eta aukerabide sendoak ere.

Ondo gauza jakina da aspaldidanik utzia ziola Euskal herriak elebakar huts izateari. Egia da ur-isuria Kantauri itsasora duten herrialde euskaldunenetan ere ugari zirela jatorrizko hizkuntzaz gainera, askotan euskara bera baino sarriago, erdara erabiltzen zuten jendakiak: itsasgizon eta merkatari, elizgizon eta agintaritzako, maisu-jende, mediku eta legelari, bere formazioz edo lan-jardunez erdal herriarekin edo bertako erdaldunekin nola edo halako

harreman jarraia zuen euskaldun orok erdaraz bideratzen zituen sarri asko, eta idatzizko zereginetan ia beti, bere gora-beherak. Diglosiazko elebidunak ziratekeen, itxuraz, herritar horietariko asko (5). Bazen kasu nabarmenagorik ere, bestalde: hiribildu hazienetan eta hiriburuetan, bereziki, ez zen banakako jendaki horiezaz gainera desentzaturiko edo euskal etnokulturaren txertatu gabeko biztanle-multzo osorik ere falta.

Muga-baldintza, salbuespen eta kontrako erasan-bide guzti horiekin ere euskarak eta euskaldun-jendeak hainbatean eusten jakina zion, ordurarte, erdal uholdeari (6). Orain, berriz, ez: aspaldidanik apurka-apurka indar-galtzen ari zen euskaldungoa odol-husten hasi zitzaigun, ia kolpean (7), epe-garai honetan. Etnohizkuntzazko gizatalde bien arteko elkarrekintza-molde berriak azelerazio nabarmena erantsi zion “language shift” delakoari. Baserri eta herrisketatik hiriburu eta industrigune bizkorretara lan bila lekualdatutako euskaldun-jendeak gizarte-molde mugikaitz eta itxiago batetik irten eta Europako mendebalde aurreratuan gailendurik zeuden bizikera, balio-sistema, jokabide eta uste-sinesmen “moderno”agoen uretan igeri egiten ikasi beharra izan zuen, *Gemeinschaft* girotik *Gesellschaft* moduko gizarte-egituretan txertatuz eta bizilagun erdaldunak, autoktono nahiz etorkin, kopuruz edota aginpidez gailen ziren bizi-esparruetan murgilduz (8).

Ez ziren baserrietik kalera jaitsitako euskal belaunaldiok mudantza-iturri bakarra ordea, eta ez iturburu nagusia ere agian, Euskal herriaren osakera soziokulturalaren bestelakotzeaz denaz bezainbatean. 1877tik aurrera (1900era bitartean bereziki) arras neurri handiko biztanle-hazkundera izan zuen Bizkaiak (eta, maila apalago batean, Gipuzkoak), kanpotik lan bila zetozen etorkin erdaldunetan oinarritua batipat. Ez txertatzen ziren biziguneari esker (Bilbo ingurua, ibar ezkerria,...), ez euskararen orduko status sozialaz (hots, euskaldunek beren hizkuntza propioari zioten istimuaz) eta ez euskaldun horiek beren gizartearen ekonomian eta aginte-organoetan zeukaten kontrol-maila apurraren ondorioz espero zitekeen langile etorkin erdaldun horiek beren buruak euskalduntzera beharturik sentitzea. Gertatu ere hala gertatu zen, nagusiki.

Erdaldungoak oro har, eta bere *Establishment*-ak bereziki, geroz eta eskueranago zituen beraz, egoera berri honek indar hartu ahala, euskaldun-jendea erdalduntzeko baliabideak. Gizartearen alor desberdinetan aurrera egin nahi zukeen euskaldunak ez bakarrik erdaraz jakin beharko zuen aurrerantzean: erdaldunekin jardun eta haien artean murgildurik bizi beharko zuen, gainera, eguna joan eta eguna etorri. Oraingo baserri-zokoan edo itsas bazterreko portu-herriskan gelditzen zen euskaldun petoak argi ikusiko zuen, orobat, fundamentuzko euskalduna izateko baldintza berri erabakiorrenetariko bat erdaldun iaioa, ez totelka-motelkakoa, izatea zela. Erdara menderatu behar zen handik aurrera, erdaldun-giroan ezezik euskaldunen artean ere, halako begirune, itzal edo gizarte-status bat eskuratzeko (9). Horren berri zertxobait zekikeenaren hitzetan esateko “sarri entzun izango dozuez esakera oneek: euskerea norako da? Euskerea zetarako? (Bustintza, 1981: 104). Erdara ikasi nahia ageri zuen, horregatik, euskaldun-jendeak; edota, bere burua hartarako gai ikusten ez bazuen, bere seme-alabei behintzat saiatuko zen ezintasun eta bajeza-estigma hori gainetik uxatzen (10). Mendez mende ezagaturiko “language spread” fenomeno, itxuraz diglosi egoera egonkor bat (11) bideratu ohi zuena, “language shift” bihurtzen ari zen une horretantxe (Fishman et al., 1985). Luze-zabaleko mintzaldatzearen gai honi gutxik bezalako arreta eskaini zion A. Campionen (1907: 176) hitzetan esateko “la gravedad de la crisis actual estriba en que la dejación del baskuenze va pasando de la categoría de hecho inconsciente, involuntario a hecho voluntario, consciente, perpetrado con deliberación que busca la ignominia del aplauso”. Eta horrela, azkenik, txikitan euskara baizik ikasi ez zuten senar-emazteek, tartean erdaldundu zirelarik, etxean bertan erdaraz egingo zieten zuzen-zuzenean, kontenplazio berezirik gabe, beren haurrei (12). Etxearekin batera euskararen eta euskaltasunaren gordailu eta “harrobi” izandako auzoa, lagunartea eta herri-giroa ere erdaldunduz zihozten: geroz eta bakanagoak ziren euskaldunek euskaldunekin euskaraz bideratu beharreko rol-harremanak, eta geroz eta ugariagoak euskaldunek erdaldunekin erdaraz bideratu beharrekoak.

Mendez mendeko gizarte-isolamendu hura apurtu eta ezabatzen ari ziren, horrela, XIX. mendeko aldakuntza politiko-operatibo, ekonotekniko eta demografiko haiek. Eta isolamendu-hesiak apurtzearekin batera euskara eta erdara mutur joka, burruka bizian hasten ziren: ordurarte hizkuntza bataren ala bestearen, inoiz gutxitan bataren eta bestearen, berriazko ezarpen-eremu izandako gizarte-esparru, -egoera eta rol-harreman berberetan jardun beharreko lehiaketari-etsai bihurtzen ari ziren euskara-erdarak. Salbuespenezko zereginak alde batera utziaz gauza ezaguna da ordea “linguistic functional redundancy” (Fishman, 1985: 45) delakoa ezin belaunez belaun mantendu ahal izaten dela. Eta, ondorioz, gizarte-ordain, irabazpide eta zigor-indar sendoenak berekin dituen hizkuntzak irabazten duela norgehiagoka hori. Euskal herria ez zen araubide horretatik kanpora gelditzen ari.

Euskal hiri eta herri askok urte gutxitan jasandako erdal etorkin-uholdeak, belaunaldi berrien erdara hutsezko eskolatze geroz eta hedatuagoak eta euskaldun gazte ugarien baserri-tik kalegiro eta industrigunerako migrazioak, askotan elearteko nahas-ezkontzak eragiten zituenak, izan zuen gainera bigarren ondorio-mota bat ere: geroz eta gutxiagok hitzegiten zuen euskara hori egunetik egunera mordoiloago, geroz eta erdal-kutsuz josiago erabiltzen zen. Ez zen harriztekoa, hizkuntz ukipenak hain izaera desorekatu eta asimetrikoa hartzen zuenez, ele-interferentzia inoiz ez bezalako oldar bizian agertzea eta transbasea erdara indartutik euskara ahulerantz gertatzea. Bilboko eta Bilbo inguruko erdaran (13), Nafarroakoan (J. M. Iribarren) edota Arabakoan (G. López Guereño, F. Baraibar) euskal oinatz-aztarrenik aurkitzea hain zaila ez izan arren hutsaren hurrengoak ziren arrasto horiek edo horien antzekoak gaztelania (gutxiago, itxuraz, frantsesa) euskararen baitan eragiten ari zen bestelakotzearen ondoan.

Hartzaile izatea ez zen berez, euskararentzat, inolako nobedade kaltegarri: neurri-muga batzuren barruan jasotako interferentziak, hizkuntz egituraren zutabe nagusiak dardara eta ezinegon biziagian jartzen ez zituzten artean eta erdaratiko berrikuntza solte horiek euskararen eraikuntza osoaren baitan txertatzeko astia ematen zuten artean, onargarri eta are onuragarri gertatuak ziren mendez mende euskararentzat (Urquijo, 1920: 13). Hartzaile izateaz gainera galtzaile bihurtu zen ordea, hizkuntz ukipenaren episodio berri honetan, euskara. Muga-oreka eta epe-abiadura guztiak birrinduz trumilka eta uholdeka bait zetorren orain, bizikera ekonotekniko moderno horren sarean kateaturiko euskaldunen belarri-ezpainetara bereziki, erdal erasan barnekoia. Bere eguneroko bizigune, lanbide eta jardungai geroz eta ugariagoetan norbere ama-hizkuntzan beharrezko solturaz eta trebeziaz hitzegiteko geroz eta barne-traba gehiago sentitzen zuen, horrela, euskaldun-jende modernoak. Euskarazko mintzamoldearen giharra, sena eta sormena galtzen ari zen kaletar-jende hori; eta, horrekin, giza-kiok geure mintzajardunean hain beharrezkoa dugun hitz-etorri erraz, bizi, zorrotz, piperduna itxuratxarki kamusten. Ez zitzaion arrazoirik falta Unamunori (Ugalde, 1979: 17, 18), hortaz, honako hau esatean: “el euskera se pierde (...) de dos maneras: en extensión y en intensidad. (...). Se pierde en intensidad, en cuanto el vascuence que hoy se habla está cada día más mezclado de vocablos de origen castellano, por una parte, y por otra se simplifica y pierde cada día más su carácter”.

Batez ere kale- eta industri giroko euskaldun modernizatuen artean, gaztelaniazko elebakartasuneranzko iraganbide lasterrean, gertatzen ari zen fenomeno hori ez zen inguramendu horretara bakarrik mugatzen ordea. Herri-herriska apartatuenetako euskaldun-jendea ere ugartzatzen ari zen kaletar erdaldun edo euskalgaiztoko elebidunekiko bere harreman-tratua. Eta harreman-bide guzti horiek, neurri apalagoan bada ere, interferentzi joera berekoak ziren funtsean: euskarazko mintza-gaitasunaren indargabetzaile. Kalera neskame, zerbitzari edo ume-zain etorritako neskatila erdaltzale haiek adibidez ez ziratekeen, Azkuek eta Urruzunok *Euskalzalen* edo *Ibaizabalen* idatzitakoak aintzakotzat hartu behar baditugu, erdal pipiak barrua jaten hasitako hizkera mordoiloaz, hobe beharrez hainbatetan, mintzo zen euskaldun-jende xehearen lekukorik okerrenak. Ustez uste gabeko erdaldun bihurtzen ari zen hizketaz eta hizkeraz, Elgoibarko ipuinlari trebeak (*Euskalzale*, 1898:56) esango zuenez, herritar-multzo geroz eta zabalagoa.

Hizkuntzaren gizarte eta hiztun mailako galera guzti horiek ez ziren ordea oinazetik gabe gertatzen ari: "what we must conclude from $B \rightarrow A = B$ is extremely great dislocation" esan izan du, era horretako mintzaldatze-fenomenoek jarduterakoan, J. A. Fishmanek (1985: 66). Eta badirudi holaxe gertatu zela neurri on batean, kasu honetan ere, eten-urratze sakon-mingarri hori. Ez dago ahazterik, izan ere, XIX. mendeko aldaketa ekonotekniko, migratorio eta politiko-operatibo haiek jarraikitzaile sutsuez gainera etsai eta kontrario sendoak aurkitu eta sortu zituztela euskaldunen artean: euskaldun handiki, kaletar burujantzi nahiz agintedun(-ohi)en artean bereziki, nahiz haien artean bakarrik ez. Kontuan izatekoak dira, horrela, gutxienez ondoko hiru herritar-multzo hauek:

– foru-aginpidearen galeraz eta modernizazio-prozeduraz sortzen ari zen gizarte-molde berria beren interesen eta gogo-xedeen kontrakoa sentitzen zuten tradiziozaleak;

– aldaketa horien aldeko apostua egin izan ondoren hartatik jasotzen ari ziren ondasun-emaizak, bai ordain-sistemari dagokionez (gorabideko gizarte-mobilitateaz) eta bai beren talde-giroko nortasun-galeraz, apostu egiterakoan uste izandakoak baino dezentez eskasagoak zirela konturatutako aurrerazaleak;

– asko edo gutxi bertako burujantzien artean bederen beti esistituriko elite preabertzaleak, gizarte-aitzinamendua ezinbestean herritasuna galduz eskuratu beharra ez dagoela baze-kitenak eta herritasun hori galtzen uzteko prest ez zeudenak.

Ez zuten gainera hain urriak izan behar herritar-multzo hauek (14) itxura denez. Eta ez ziren batere urriak eta motelak gertatu, bereziki, 1876tik aurrera.

Euskararen eta euskal herri-nortasunaren aldeko mugimendu-pizkundea sortu zuten herritar horiek: hizkuntza eta etnizitatea elkartuz dislokazio-eten mingarri horiei aurre egin eta, ahal zen neurrian, herri-bizitzaren osagai etnolinguistikoak "bere onera" ekartzeko ahalegin saiatuan abiatu ziren. Hor legoke, itxura osoz, gorespen (G. Mujika; Estornés-Lasa) adinbat gaitzerizte (Unamuno; Juaristi, 1987) jaso ohi duen XIX. mendeko euskal protoelitearen sorrera. Foru-galeraz "zigortua", Restaurazioko agintekarak bere herrian nor izateko eta herritarrengan eragiteko itxaropen-leihoak geroz eta itxiagotzen zizkiola oharturik, sustrai bila abiatu zen protoelite hori, bere ordurainoko indar solteak elkarturik, Euskal herriaren aldeko xede-helburuak zaharberrituz eta "revival and rebirth movement" (Fishman, 1985: 67) modukoa osatuz: euskal Pizkundearen lehen uhina osatzera iritsi zen horrela. Protoelite honi zor zaio, neurri handi batean, gaur egun indarrean dagoen euskal nortasun etnokulturalaren jakinaren gaineko formulazioa eta elaborazio sinbolikoa: Nafarroako *Asociación Euskara* izan zen itxuraz (Estornés Zubizarreta, 1983) norbere eskualde eta probintziaz haraindiko euskal batasun zabalaren bozemaile sendoena, batasun-asmo zabalago hori 1876 inguruan *Zazpiak Bat* ikur-esaldian laburbildu zuenetik. Batez ere Manterolak eman zion bestalde, *Cancionero Vasco*-az lehenik eta *Euskal-erria*-z ondoren, Pizkunde-saio horri ele ederrezko hizkuntz lanke-ta praktikoan orduraino ez bezalako batasun eta hedadura.

Batasunaz gainera antzinatasuna eta jatortasuna zuten protoeliteok bigarren langai nagusia: euskaldunak aspaldi-aspaldidaniko asaba zahar amankomunen ondorengo zirela aipatuz, *Euskeria-k* "betidanik" besteengandiko herri berezi bat osatzen zuela baieztatuz eta bere historia izkutuaren baitan gehienek uste ez bezalako altxor preziatua gorderik zuen gizatalde soziokultural beregain jator bat zela aitortuz kulturabide berri bati ekin zioten Pizkunde-gileek. Galtzeaz edo jadanik galdurik zeuden tradizio-elementuak, jatortasun-olioz gantzutuak, jasotzen bezainbat edo are gehiago saiatu zen protoelite hau, beste hainbaten modura, "galdurik zegokeen"-a ere –histori azterlanez, literatur asmazioz eta mitogintzaz– sortzen eta birsortzen (Fishman, 1973; 1985: Juaristi, 1987).

Politikagintzak eskainiko ez zien(15) poz-iturria aurkitu zuten horrela, XIX. mendeko dislokazio-eten gogor hark erasandako era bateko nahiz besteko fuerozaleek, beren gogozko

sustrai-, etorki- eta "jatortasun"-bilaketa saiatuan. Nortasungintza horretan asmazioari leku berezia eman izanak ez du protoelite eten-erasan horien baitan zegoen emozio- eta jatorri-egarri horren oinarri objektiboa eta nondik norakoa ezertan baliogabetzen (Sarria, 1918; Fusi, 1984: 159; Fishman, 1985:67).

Arrese-Beitiaren negar-eresi eta lantu-jotzeak, Campionek Erraondoko azken danbolinjoleaz adierazitako etsipen-giroa edota bere "(el baskuenze) retrocede a las cumbres de las montañas para morir más cerca del cielo" esaldia, Txomin Agirrek handik gutxira euskarazko elaberriz eta belaunaldi askoren bihotz-hunkigarritzko adibidez hornituko zuen hura, ez ziren hiruzpalau nostalgikoren okurrentziak, luze-zabaleko etnigaltze eta translinguifikazio edo mintzaldatzeak buru-muinetan euskal gogoia itsatsirik zuten protoeliteengan sorturiko nahigabe samin baten adierazpena baizik.

Ez ote zen jadanik beranduegi, ordea, gaisoari bizi-iraupenezko sendagairik eman ahal izateko? Abandotarrak (Arana, 1980: 26) deitoratuko zukeenez, "¿jayo nintzan ni/zeure il-orduan/eltzeko?". Beste zenbaitek emana uste zion dagoeneko galdera horri erantzun betea. Horrela, Gipuzkoako Biltzar Nagusiek 1855ean Lardizabalen gramatika argitaratzea eta herriz herri banatzea erabaki zutenean "para generalizar la enseñanza de la lengua vascongada", horra Ramón Guerecak hitzaurrean zer zioen: "La Diputación de Guipúzcoa acordó que se compusiera y publicara esta gramática para que las generaciones futuras puedan conocer por este monumento cómo fue esta lengua que está casi tocando su fin" (Villasante, 1961: 261-2 orr.). Ez zen beraz hain eritzi berririk agertzen ari Unamuno Bilboko Lore Jokoetan beste hau esan zuenean: "¿Y el vascuence? ¡Hermoso monumento de estudio! ¡Venerable reliquia! ¡Noble ejecutoria! Enterrémosle santamente con dignos funerales, embalsamado en ciencia; leguemos a los estudios tan interesante reliquia". Edota, handik urtebetera, beste hau zioenean: "Lo único que queda, ya lo dije en Bilbao, es embalsamarle en ciencia; recoger con filial piedad sus restos antes de que se suman en el olvido; levantarle un monumento funerario (Ensayos, I, 397-8). Azken-azkenetan egotearen kontzientzia horrek pizten zuen bestetik, han eta hemen, mobilizazio-grina. R. M. Azkuek (Charriton, 1986: 95) esango zuenez "eri batzuntzat loa bizibidea da, guretzat erioibidea litzakela uste dot".

Giro horretan plazaratu zuen Sabino Aranak, jakina denez, luze-zabaleko euskal abertzaletasunaren formulazioa. Erljio-kontua oraingoan alde batera utziaz zutabe bi izan zituen, nagusiki, formulazio horrek: Euskal herriaren osakera politiko-operatiboa (16) alde batetik; eta, bestetik, bere integrazio soziokulturalaz ziharduena. Lehen zutabeari emandako bultzadaren emaitza ditugu, besteak beste, behialako foru-aginpidearen burujabetasunezko definizioa, ikurrina eta euskotar-kontzeptua: *euzko lurra* eta, ororen gain, *euzko aberri Euzkadi*.

Lehenaldiaren formulaziorako eta jatortasun etnokulturalaren elaborazio sinbolikorako hainbat zertzeladatan baliozkoak gertatu arren, osakera politiko-operatibo hori behar bezala bultzatzeko indargeak, epelak eta txepelak (17) iruditzen zitzaizkion S. Aranari lehen Pizkundealdiko fuerozaleen esan-eginak: euskara eta Euskal herria hondamendi hartatik salbatzeko inkapazak. Abertzaletasunik gabe alferrik zen, bere ustez, euskalgintzan jardutea. *Euzkeltzale bateri* esango zionez "ezta ezebez euzkelduna ixatia, abeitzalia ixan ezik. Dana da abeitzaletasuna, euzkerea jakin ezik be. Abefija eztau gaizkatuko euzkerea; bai ta bakañik abeitzaletasunak. Zabaldu egixu abeitzaletasuna, ta berakin euzkerea be zabalduko da" (Arana, 1980: 1296). Baldintza beharrezko eta aski den adinako zen beretzat, euskalgintzaren gurdia garaipen-bidera eramateko, abertzaletasuna. Helburu politiko-operatiboek zuten bere ustez, horregatik, lehentasuna: *Euzkadi* askatutakoan salbatuko zen Euskal herria, bere jatorrizko hizkuntza, ohitura eta uste-sinesmenekin. Independentzia zen, hortaz, egitismo osoaren giltzarri.

Mendebal Europako partean egonik ordea, Estatu-nazionalitatearen kontzeptua menderik mendeko praxi sendo batean oinarriturik dagoen lekuan alegia, zailtasun biziak izan zituen Aranak, Europako Erdialde-Ekialdeetako herri gehienetako aitzindari abertzaleek bezain-

bat edo are gehiago, nazionalitatearen lehentasun-erizpidea defendatzeko: hots, estatu-nazionalitatearen aurrez aurre eta haren ordainetan nazionalitate-estatuaren nagusitasuna aldarrikatzeko. Frantzia, Ingalaterra, Holanda, Portugal edo Espainiako Establishment-ak ez zuen puntu horretan zalantza-izpirik: Estatuak eta Erresumek sortuak ziren nazionalitate eta are nazioak. Zer zen gero, orain, nazionalitate sentitzera iritsi berritako herri txiki apal horiek berekabuzko Estatu burujabeak sortu nahi hori, lauzpabost mende luzeko herrigintza estatal ongile-zuhurra itzulipurdikatuz?

“Historiarik gabeko” (18) beste hainbat herrialderen kasuan bezala perbertsio bat iruditu zitzaion askori, eta ez bertako erdaldunei zein Euskadiz kanpoko agintari, pentsalari, handiki eta gizajende xeheari bakarrik (19), Europako lur-muttur honetan Fichte eta Herder-en ideetan oinarrituriko estatu(-elkarte) monoetniko beregain bat sortu nahi izatea (20). Aranaren lehen orduko formulazioak berak, enfasia nagusia estatu propio horren bidezko integrazio-molde politiko-operatiboetan eginaz eta arraza, deitura-kontuak eta antzeko hesi-neurriak azpimarratuz, gaizkoatu baizik ez zuen egin euskal abertzaletasunarekiko herra eta are gorrotoa (21): aberrazio-itxura hartzen zitzaion, Joshua A. Fishmanek (1972:25-6; 1985:6-7) egoera horretako nazionalitateez jarduterakoan aipatu izan duen modu beretsuan, eusko-asmo horri; izakera atzerakoi-itxia, tribala, purrkatzaile eta apurtzailea hartzen zitzaion ezker-eskuin (Lord Acton, 1907: 298; E. Arantzadi, 1935; J. Azurmendi, 1979; Chamberlain, 1899; RIEV, XVIII, 644-6).

Estatu-egituren sendotasunaz eta iraupen-indarraz jabetuta, abertzaletasun espainolean sendo txertaturiko hainbat herritarrek (azken orduko etorkinez gainera bertako handiki, kalejende jantzi eta dirudun askok batez ere) bere proiektu hori neurri ohargarri batean onartzen ez zuenaz jabeturik eta euskalgintzaren herri-apostua hiltzori-hiltzorikoa zenaz komentaturik zegoenez, bigarren formulazio-saio bat egin zuen Aranek, ongi ezaguna denez, 1901-1902 urteetan. Horrela, Engrazio Arantzadi “Kizkitza”ri egindako eskutitzean lehenik eta jendarean ondoren, integrazio politiko-operatiborako Estatu propioa sortzea bultzatu ordez Euskal herriaren osakera soziokulturala, eta bereziki euskararen gerorabidea, segurtatzeko eskuragarriago izan zitezkeen xede-helburu eta jokamoldeen garrantzia azpimarratu zuen saioaldi berri honetan. Honela zioen Sabino Aranek delako eskutitz horretan (1901-I-5): “Cuando me pongo a pensar sobre esto como sobre la raza, comprendo claramente que esto se va: se va antes de que termine el siglo que acaba de empezar. El único remedio está en el dinero, y éste no se encuentra. El aldeano sabe de sobra que el euskera de nada le sirve al hijo. El remedio está pues en fundar industrias, sostener compañías navieras, organizar sociedades de artes y oficios, hermandades benéficas y de mutualidad, de pesca y de agricultura, de ganadería, apoderarse o abrir vías de comunicación, nacionalizando todas esas esferas de la vida, de suerte que el euskera sirva de algo, porque sea obligatorio para tener parte de ellas (...) Es preciso que el euskera baste, y es el caso que no sirve más que para hablar de operaciones agrícolas” (E. Arantzadi, 1935: 104; 129).

Ikusmolde horren ildotik beregaintasun politikoaren garrantzia bigarren maila batera pasatzeko saioak egin ziren. E. Arantzadi “Kizkitza”-ren beraren hitzetan esateko: “No es el aspecto político lo único ni lo eminente de la acción nacionalista, ni por ello es la independencia el fin único ni el principal del nacionalismo. Es un error gravísimo (...) ese de estimar que su fin está en la independencia. (Hay que) trabajar por la identidad étnica y social de la nacionalidad”. Edo-ta, Sabinok berak hil aurretik esandakoa berretsiz, honela zioen aurrera-geago: (Hay que obtener) “una autonomía lo más radical posible dentro de la unidad del Estado español, y a la vez más adaptada al carácter vasco y a las necesidades modernas” (Arantzadi, 1935).

Independentzia aldarrikatuz edo autonomi bidera bilduz, gizarte-aldaketa lasterrak aski zarpaildu eta urratua zeukan euskaldun-jendearen talde-nortasuna berrezartzeko eta, oro har, gizarte-aldaketa sendo horrek sortzen zituen arrisku-arazo eta itxaropen-aukera berriei

beren (ez, Carlosenean-eta bezala, besteren) on-beharrak eska zezan moduan aurre egin eta erantzuteko mugimendua sortu zuen S. Aranak: euskaldun-jendea batera biltzeko eta, elkar hartuz, etnokulturazko nortasun-asmo zabalago batean beren uste-sinesmen berezi, balio-erizpide propio eta jokamolde egokienak lantzen eta gizartegune desberdinetan indarrean jartzen lagunduko zukeen ideologia. Aurreko protoeliteek ez bezala arrakasta izan zuen Aranak, partez edo osoz, uste-sinesmen, ikuskera eta jokamolde horiek ordurainoko “euskal” *intelligentsia*ren zirkulu itxietatik atera eta kalejende arruntei (eta gero baserritarrei) komunikatzen eta jendea herrigintzan jartzen: hortik datorkio Aranari, bere formulazio nagusien berri-tasunetik baino areago, euskal abertzaletasunaren aitaponteko-aitormena. Estatuaren soberania talde etnikoen autonomiarekin nola uztartu asmatzeko arazo politikoa (Znaniiecki, 1952: XIV) hain bizirik zegoen aldiaren bete-betean sartu zuen Aranak Euskal herria jakinaren gaineko nazionalitateen sailean. Euskal Pizkundeak berak bigarren fase bat ezagutuko zuen handik aurrera, aurreko saioaren jarraipen huts edo berezko garapen gisa ezin esplikatzeko.

Nazionalitate-kontzeptuaren (22) ikusmolde soziokulturala, aldi berean jatortasunez eta berritasunez oratua, izan da itxuraz, mende-hasieratik 1937ra bitartean, euskalgintzan saiaturako norbanako eta elkarte gehienek lehentasunezko xede amankomun nagusia (23). Estatuarekiko integrazio-molde eta -maila aski desberdinen alde burrukatzen zuen euskaldun askok bateragune bat aurkitzen zuen, sarri asko, euskal gizartearen osagai etnolinguistikoaren aldeko langintzan. Herrigintza osoaren giltzari abertzaletsuna hartzen zutenen artean ere ez zen falta, beregaintasunezko formulazio politiko-operatibo begiluzeenak berak euskaltasuna ordeztarazko *vasquismoa* ekar zezakeela ikusirik, euskalgintzari berariazko protagonismoa aitortu nahiago zionik. Ebaristo Bustintza “Kirikiño”-k horrela adieraziko zuen ikusmolde hori, berak ohi zuen zorroztasunez: “abertzaletasun, euskotasun, jeltzaletasun, askatasun eta abar, zarata asko darabilgu. Euskerea galtzen badogu, zarata orrek, zetako? Euskera bako Euzkadi? Gogo bako gorputza! Usteldu!!” (Bustintza, 1984: 203). Era horretan, abertzaletasun politikoa-*ren* gainetik *language loyalty* (Weinreich, 1953:133) moduko abertzaletasun etnokulturalak (edota, huts-hutsik, euskaltzaletasunak) (Larronde, 1979: 220; Etxaide, 1986; Hiriart-Urruty, 1909; Urquijo, 1918) berekabuzko babesle eta laguntzaile garrantzitsuak bildu ohi zituen. Hizkuntzako alderdi-politika gotor baina hertsiki batek bereganatu ezin izango zukeen erakarmen eta itzala lortu izan zuen alegia euskalgintzak: bai 1920 ingururarte, “Kirikiño”-k berak adierazitako ikusmolde horren arabera; eta bai 1927-37 epean ere, Jose Ariztimuño “Aitzol”-ek (1987; I, 201-5) edo Jose Mari Agirre “Lizardi”-k (1986: 267-9) aski era argian iragarri eta bultzatuko zuten ildotik. Hori dela-eta, Euskal herriaren batasun-erizpideak eta bere ezaugarri soziokultural eta etnolinguistiko jatorren balio-indartzeak inoiz ez bezalako gorakada izan zuen.

Beste gauza askotan etsai purrkatu zirenak ere osorik bat zetozen, izan ere, puntu bitan:

a) XIX. mendeko transformazio tekniko-industrial eta ekonomikoek, konfliktu armatuaren ondorengo foru-aginpedearen galerak, bapateko inmigrazio zabalak, herritar xeheek norik bere gogo-interes on-beharrez politikagintzaren lehiaketa librean parte hartzearen aldeko ideologiak eta beste zenbait gertakarik zaharkiturik eta indarge utziak zituen jadanik behialako Euskal herriaren ohizko bizimolde eta etnokulturazko lokarri asko: urratu eta eten egin zituen, neurri ohargarri batean, oinarri soziokultural horiek.

b) Indargabetze eta eten-urratze hori osorik desegin edo ezabatzerik eta euskal gizartea bere lehengo izate hartara berriro eramaterik ez zegoenez, Euskal herriak herri gisa bizirik jarraitzea nahi bazen aro berriari ongi egokituko litzaizkiokeen oinarri eta lokarri etnokultural eguneratuak asmatu eta ezarri beharrak zeudekeen.

Eten-urratze horri konponbide jator eta moderno bat ematea, adelantu eta bizimodu berriak onartuz baina “azal horiztaren pean muin betirakoa” gordeaz, horra hor mende-

-hasierako euskaltzale gehienen asmo nagusia. G. Mujika (1907: 547) batek honela emango zuen, Elgoibarko Euskal jaietan kasu, asmo horren berri: “iñork esatenbadizute ezertarako balio ezduten zarkeriak ekartzea dala guk naideguna, erantzuiozute Euskalerrria jarri nai degula *bide berrian* (azpim. nerea) eta jarraitu azi aurrera beti; gure gauza zarretatik batzuek betiko utzi nai ditugula, antolatu oraingo bearrak betetzeko beste batzuek, eta bi gauza, izkuntza ta Lege Zarrak, ekarri antsiña ziran bezela”. Ikuspegi kosmopolitago batetik abiatuz eta Japongo pasadizo batean oinartuz beste era honetan adieraziko zuen aldiz M. de Aznar Zubigarayk (Hermes, 1917: 43-4) Bilboko elite industrial-komertzialaren zati batek, *modernity* eta *authenticity* arteko tira-biran kateaturik, burumuinean iltzaturik zeraman oreka-nahia: “Quiero que mi ciudad se parezca a sí misma; pero en un costado del puerto, abramos una ruta ideal que vaya a todas las ciudades de Europa, cruzando al ir y al retornar las aguas de Inglaterra”.

Oso irudi okerra emango litzateke, dena den, jokamolde malguago horri eskerrak ordurarteko Euskal herriaren nortasun-indartzeari buruzko traba-eragozpenak gauetik goizera desagertu eta handik aurrera anaigiro paketsu bat gailendu zeneko ustea zabalduko balitz. Gauza bat da izan ere *azal horiztaren pean muin betirakoa* gorde nahi horretan partez edo osoz bat etortzea, eta beste bat muin betirako horren gutxienezko eta beharrezko osagai-elementuen multzo zehatza ahobatezko adostasunez definitzera heltzea. “Euskararen eta Euskal herriaren” aldeko asmoak eta jarrerak indartzen ari ziren, bai; baina asmo-jarrera horiek eguneroko ekintzaz hezur-mamitzerakoan berehala agertzen zen, gordin eta garratz, Jernudd-ek eta Neustupný-k berrikitan (1987:77) aipatu izan duen *beste* problema: “Language planning, for whom?; linguistic interests [...] normally also coincide with some economic, social, political or cultural interests of speakers”. Euskalgintzaren saiorik xotilenak ere “vizcainismo”-aren ume eta bere probetxu hutserako ekintza zirelako ustea eta salaketa ez zen, berez, ezker-eskuinetako hainbat plazagizonen buru eta are ezpain-lumetatik inoiz desagertu. 1910-1913ra arteko aurrez aurreko burrukaldiari lejitimazio sozial nabarmeneko epe bat jarraitu zitzaion ordea, ondoren, bere gora-behera guztiekin ere (24).

1918an jo zuen aldi berri honek, Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Biltzarrean, bere goi-erpina. Gerra-garairarteko epealdi osoan gaintzerik izan ez zen moduko indar-biltzea (25) lortu zen han, Euskal herriaren konfigurazio etnokulturalaz gogoeta-lan sakon eta eman-kor bat bideratuz. Eskuartean dugun gaiari dagokionez L. de Eleizaldek urratutako bideak, batez ere, ondorio biziak izan ditu harez geroztik euskaldungoak bere buruari ezarri izan dizkion helmuetan. *Corpus planning* eta *status planning* kontzeptuak, beste hitzekin esanik ere, garbi berezi ziren idazlan hartan (26) eta, hori baino garrantzitsuago dena, baterako zein besterako abiaburu eragingarriak ezarri zituen Eleizaldek.

Corpus planning edo, bere hitzetan esateko, “*restauración literaria de la lengua*”-ri buruzkoez ez naiz hemen luzatuko, lan-esparru honetan gabiltzan euskaltzale zein azterlari gehienontzat ondo ezagunak direlakoan: oinarri-oinarrizkoa bederen ez isiltzeagatik aski izango da Euskaltzaindiak bere iturburu zuzen eta hurbilena giro hartan izan zuela gogoratzea. Status planning edo “*restauración social de la lengua*” delakoaz merezi du, ordea, ohar pausatuagorik egitea. Honela adierazi zuen Eleizaldek (1918:431), Eusko Ikaskuntzaren sorrera-biltzarreko bere txosten famatu hartan, egungo *code selection* edo *allocation of norms*-en parekoa (Haugen, 1983:275) litzatekeen oinarrizko markoa:

a) “El euzkaldun de cultura media o elemental no necesitará más que su propio idioma para la generalidad de los casos de la vida”.

b) “El euzkaldun de cultura superior necesitará uno o varios idiomas extranjeros, exactamente en el mismo grado y forma en que los necesita hoy un francés, un inglés o un alemán de análoga cultura. Pero cuando tal momento llegue, es evidente que la lengua ordinaria, usual y corriente del euzkaldun de alta cultura será el Euzkera, un Euzkera mucho

más literario, fluido y rico que el actual, seguramente. La base y coronamiento de la restauración social de la lengua es la necesidad de hacer del euzkera el vehículo de todos los grados de cultura que la «gens» vasca necesita para su plena vida colectiva”.

Oinarritzko hizkuntza bakarria euskara izango zuen konfigurazioa prestatu zuen beraz Eleizalde, frantses-gaztelanietan (eta, agian, ingelesari) atzerriarekiko harremanetarako hizkuntza gehigarrien statusa aitortuz. Bere azalpenetik ez da behar bezain argi agertzen, halere, elebakartasunezko formula hau Euskal herri osoan ezartzea proposatzen zuen ala zonalde euskaldunetara mugatzekoa zen.

Hizkuntzazko formulazio horiek ez ziren berez laborategi itxiko adierazpen akademiakoak, pentsalari edo ameslari bakarti baten buru-jardun isolatua; behinolako protoelite —eta dagoeneko, esparru jakin batzutan, elite— euskaltzaleek azken hogeitun urtean bederen aurrera zeramaten herrigintza osoaren atal bat ziren, aitzitik, xede-azalpen horiek. Euskal herriaren oinarritzko batasunaren bilaketa zen, esan bezala, langintza horren helburuetako bat; oinarri amankomun horren jatorria azpimarratzea bestea; eta batasun-jatorria horiek erdal mundutik berezi, apartatu eta bestelakotzen lagun zezaketen muga-hesiak bilatzen edo sortzen ahalegintzea azkena.

Osabetezko langintza horrekin euskal gizartearen soziokulturazko integrazio-oinarri berriak jarri nahi izan ziren. Burrundara bizian erortzen ari zen Euskal herri zaharraren arruinetatik berreraiki nahi zen Euskal herri berrirako baliozkoak gerta zitezkeen etnokulturazko elementu jator guztiak bildu, apaindu eta altxortegian jasotzea zen, hartarako, lehen orduko eginbehar nagusietarikoa. Eta bestea, horren ondorengoa, gizarte moderno horretarako taxutu beharreko elementu berriak “euskal arauz” sortzea eta garaiz gordetako elementu jator zahar haiekin neurri egokian konbinatzea. Kultur politikazko asmo oso baten atal-zatia zen, horrela, Eleizalderen hizkuntz politikazko proposamena. Berak ere ondo zekien hori, jakina, txosten berean honako beste hau esatean: “afánanse hoy día los vascos, con loable ardor, por descubrir y patentizar las características todas de la personalidad de nuestro pueblo, y no hay campo ni región de la actividad humana que no se exploren cuidadosamente para descubrir qué es lo debido al genio vasco en las instituciones políticas y sociales, en la historia, en las artes plásticas, en la música, en la literatura y en las ciencias”.

Gogoangarriak dira, horrela, gizarte-bizitza osoari azal eta mami erantsi nahi zitzaion jatorria etnokultural hori bilatu eta goretzeko asmoz ondoko lan-eremuotan egindako saioak:

a) Historiaurrean eta antropologian ezin ukatzeko aurrerapenak egin ziren, urte-inguru haietan, lehen euskal herriaren eta lehen euskal gizonaren bilaketan. T. Aranzadi, I. Eguren eta J. M. Barandiaranen azterlanek bereziki, batetik behialako leize-zulo, harrespil, triku-harri eta jentil-baratzak ikertuz eta bestetik euskaldun-jendearen buru-hezurren neurri-tankerak eta abarreko elementu bereizgarriak finkatuz Euskal herriaren behialako batasunaz edota aspaldi-aspaldidaniko nor izanaz zientzi oinarriko jakitate eta argudio-bideak eskaini zituzten. Euskaltzale burujantziek lehenik, eta euskaldun-jende xeheak ondoren, beren amets-gutuzi pizgarrienen lejitimazio-iturri eta etorkizun-eredu sentitu ohi zuten gogobetezko iraganaldi bikain hartarako atea zabaltzen zuten, neurri on batean, ikerlan sendo haiek (27).

b) Euskal gizarte berriari kultur jatorria sendoa emateko balio zezaketen behialako dantza-moldeak eta musika-tresnak, aho-literaturaren ondasunak eta herri-kantuak ardura bereziki jaso, noiz edo noiz “ondu” eta, “handiki-soinekoz” jantzi ondoren, euskaldun-euskotarren artean ezagutarazi eta indar berriz berrezartzeko saio bereziak egin ziren. Gogoan izatekoak dira, horrela:

— galzorian omen zegoen (28) txistuari emandako bizi-arnas berria eta, oro har, danbolin-ttunttunei, xirula-albokei, txalapartari eta abarri eman nahi izandako aupada;

– ezarpen-eremu modernoagoetan txertatuz xede mobilizatzaileak gehitu zitzaizkion, era berean, dantza-kontuari: aurreku eta arin-arinak, fandango eta biribilketak, ezpata-dantzari eta neskato poxpolin gorulariak (29) ez ziren aurrerantzean gazte-jendearen atsedengai huts izango;

– herri-kantu zaharren bilketa-lana, R. M. Azkue eta A. Donostiarena bereziki, garai-ko musika jantzi berriaren eta abesbatzen harrobi agortezin bihurtuko zen bestalde (30);

– bertsolaritzari, agergune eta jardungai berriak erantsiz, emandako bultzada, orobat, mende-hasiera horretakoa da.

c) Ohizko herri-kirolei ere balio berririk erantsi zitzaaien. Pilotariez eta estropadetako arraunlariez gainera istimu berria aurkitu zuten horrela, baserritik kalegirora (are zezen-plazetara) erakarriz, aizkolari eta harri-jasotzaileek, palankari eta harri-zulatzaileek, soka-tirak eta idi-demak,...

d) Galtzeko zorian zeuden “folk tale”, ohitura eta kontu zaharrak jasotzen eta egituratzen ere egiten zen lan sendorik. Burubide argiz jokatu zuten horretan J. M. Barandiaranen Gasteizko mintegiak bere *Anuario de eusko-folklore*-az nahiz R. M. Azkuek bere *Euskaleriaren Yakintza*-rekin.

e) Artzain-nekazarien bizikerari ere, bere behialako izaera hartan gain-behera bizian zetorren une berean, eredugarritzko ezaugarriak aurkitzen zitzaion (J. Thalamas-Labandibar, 1935; E. Arantzadi, 1932). Han zetzan gorderik, nonbait, euskal instituzio juridiko jatorren hainbat oinatz garbi (31).

f) Herri-artearen bilaketa-lanak ere uzta joririk eskaintzen zion jatorrigintzari. Hasi elementu ximpleenetatik (argizaiola, mendiko makila, zurezko kutxa zaharrak) eta forma osatuenetaraino (baserri-arkitektura), denean zegoen zer jaso eta zer landu. Lapurdiko (eta inguruetak) hilerrietan hain oparo ageri ziren hilarri diskoidalek eta bertako inskripzioek pentze-larre aberatsa eskuratzen zieten orobat, M. Collas-en ondotik, *authenticity*-bazkaren gose zirenei.

g) Deitura-lanketak edo heraldikak ere, J. C. Guerraren eta abarren ildotik, eragin bizia izan zuen euskal etorkiaren argitze- eta edertze-lanean.

Antzina-antzinako garaia eta mendi-zokondo urrunetako baserri-giroa: horra hor, euskararekin batean, euskal batasun-jatortasunen bila, eguneroko miseria fenotipikoen azpian bizirik zegokeen genotipozko edertasun betea eskuratu asmoz, bazterrik bazter olermen-irakitez (32) zebilen *intelligentsia* haren ezin hustuzko ganbara.

Iturburuetara itzultzeko saio-ekitaldi hau ez zen dena den, askotan besterik esan izan bada ere, tradizionalismo atzerazalea. Are gehiago: bere jokabide gehienetan ez zen ez tradizionalista eta ez atzerazale: ez zuen gizarte-bizitza bere lehengo benetako egoera hartara atzera itzularazi eta bere hartan mantendu nahi; lehengo bizikera hari kanpotik dislokazio-etenik eragin izan (eta eragingo) ez balitzaio euskal gizarteak “berez”, “jatorrizko arauz” egungo egunean eta bihar-etzietan beharko zukeen bizimoldera ekartzeko apostu modernizatzailea izan nahi zuen aitzitik. Horrela,

– kale-kultura berriaren gibel-erraietan txertatu zen funtsean, inon baino areago, mende-hasierako musikagintza jaso: bai herri-kantu bilduberrietan oinarriturikoa, eta bai bereka-buzkoa. Kaletar “moderno”-entzat egin zituzten, Europako berri ondotxo ikasi ondoren askotan, Usandizagak *Mendi-mendiyan* (1910), Azkuek *Ortzuri* (1911) edo Guridik *Amaya* (1920). Era berean, euskalgintzaren burrukaleku modernoaren zilbor, muin eta auspo ziren Donostia edo Tolosa moduko hiriguneetan, ez herri-herriska apartekoenetan, jarri nahi izan ziren

lehenik indarrean Gabon-kantak eta Olentzaro-ospakizunak; eta, orduan ere, forma zaharrari eutsiz baina kaletar kultura berriari baizik nekez ezar zitezkeen xede berriak erantsiz (Ariztimuño, 1987: 379-81; 393-4) jarri ziren indarrean.

– hilarrietako ornamentu eta inskripzioei ere, han-hemenkako lauburuei bezala, kale-giroan aurkitu zitzaizkien ezarpen-gune eta erabil-eremu berriak: inskripzio zaharretatik eratorritako letra-moldeetan oinarrituz “euskal letra-moldeak” eratu ziren horrela eta, hilarri berrietan edo baserri-atarietan baino areago, aldizkarietan eta etxadi publikoetako errotulazioan indarrean jarri; Poloniako Frankowski etnografoaren eraginez lauburu biribilari (1901ean, S. Aranaren beraren bulkadaz, lerrozuzenari bezala) euskal enblema-esanahia atxikitzeke saioak egin zirenean ere kaletar-jende modernizatuak ziren noski, baserriar “geldoak” baino lehenago, enblema horren inguruan mobilizatu nahi.

– kale-giroan ugaritu ziren orobat, inon baino areago, baserri- edo euskal-kutsuko etxadi eta eraikuntzak: dirudun berrien jauregi moduan, profesio liberaletako kaletarren etxebizitza, landetxe edo txalet gisa; tren-geltoki, posta-etxe edo ospitaletarako,... Herri txiki eta auzoetan horrelako eraikuntza “tipiko”-rik gutxi egin zen; eta, egin zenean ere, Bizkaiko auzo-eskolen kasuan adibidez, Diputazioko “kaletarren” ekintza izan zen nagusiki (Eleizalde-Landetena, kasu horretan, hainbatean).

Tradizionalismo atzerazalearen kontu hori balegoke beraz, izena izanak definitzekotan, zertan aldatu. Gizarte-berrikuntzaren oldean, modernizazio-zurrunbiloaren muinetik aski hurbil zebilen euskalgintza. Bere euskarri eta auspo nagusi zen abertzaletasunaz ere badirudi zilegi litzatekeela antzeko beste hainbatez inoiz esan izan den hura erreplikatzea (Fishman, 1972: 20): “the ideology of nationalism is antiurban only in that it locates the origin of broader unity and authenticity in the preurban past”. Eguneroko ogia egiteko legami-indarra izan zezakeen neurrian, indar horren arabera batez ere, izan da euskal mugimendu jatorzalea zarrantzale eta tradizio-maite. Osasun onez edo makalik, galtzeaz edo are zeharo hilik zeuden etnokulturazko elementu guztietatik batzuk bakarrik gordetzen eta berpizten ahalegindu izan da, horregatik, euskaltzale-jendea: begiz jotako gizarte-asmo hiritar-modernorako egoki eta beharrezko zeritzanak hain zuzen. Euskal herriaren batasun, modernitate edota berezitasun etnokultural horretarako desagoki edo galgarri ziruditenak erreparatu handirik gabe zokoratu edo ezabatuko ziren, aitzitik. Horrela:

– onomastikaren alorrean, euskal izen-deiturak –*tar* atzizki etnikoaren jira-biran (Tovar, 1980: 169) berrantolatzeaz gainera berrikuntza nabarmen bat bideratu zen: urteak aurrera joan ahala aski arrakastatsua gertatu den bataio-izenen iraultza (cf. S. Aranaren 1898ko *Lenengo egutegi bizkaitarra*, L. Eleizalderen 1910eko *Izendegi Euzkotarra*). Euskaraz jakin gabe ere bere burua (edo, askozaz sarriago, bere seme-alabena) erdaldun-atzerritarrengandik bereizteko hesi-muga sinboliko ohargarri bat “fabrikatu” zen, beraz, tradizio ezagun jatorra (Euskal herri berriarentzat begiz jotako jatortasun-ereduan ondo kabitzen ez zen tradizio jatorra) erroten erauziz.

– benetako tradizio jatorraren itzulipurdikatze-saio erradikalagorik ere egin zen oraindik: hogeinakako zenbakikuntz sistema (*hogei, berrogei, hirurogei...*) jatorra, gaztelaniatik eta Europako hizkuntza nagusi gehienetatik (ez hainbat, halere, frantsesetik) gogor bereizten gintuena, asmazio hutsezko sistema hamartar (*hamar, berramar, hiruramar...*) batez ordezkatu nahi izan zen.

Era honetako kasuetan ikusten da argi, inon ikustekotan, euskal Pizkunde (berri)aren xedeak eta helmugak noraino ziren tradiziozalearen kontserbatzaileaz apartekoak: jatortasuna bera ezezik gaztelaniarekiko hesi-muga bereizleak ere ezabatzeko prest zegoen mende-hasierako euskaltzale-mugimenduaren zatirik organizatu eta mobilizatzaileena. Zeren izenean edo zeren truk zeuden ordea, jendaki horiek, jatortasun-marka eta hesi-muga bereizleok

ezabatzeko prest?: Aranak berak garbi aitortuko zuenez, gizarte-premia *berriei* ahalik era samurrenean erantzun ahal izatearen izenean. Modernitatearen mundu berria, horra hor, jatortasunarekin batera mende-hasierako euskalgintzak begien bistatik inoiz galduko ez zuen bigarren xedea.

Authenticity and modernity, jatortasuna *eta* (ez *ala*) berritasuna izan zen horrela, beste hainbatena bezala, Eusko Ikaskuntza osoaren (eta bereziki Oñatiko Biltzarraren) *leitmotiv* nagusietako bat. *Eta* ez hizkuntzaren alorrean soilik, Euskal herriaren konfigurazio soziokulturalaz ziharduten azalpen *eta* ekinbide gehienetan baizik. Eleizaldek *eta* bestek, Oñatikoan edo handik berehala (Broussain, 1918; Urquijo, 1920), plazaraturiko *language planning* asmo hura bertako eliteen zati ohargarri batek, lehenengoz historia ezagunean, elkarlanean diseinatu zuen *identity planning* osoaren atal nagusi bat zen.

Ez zen hain harritzekoa, gainera, euskal eliteak unealdi hartan elkarren arteko nortasun-bilaketa horretan interesaturik egotea: Europako Kantzileria gehienek mahai gainean zituzten dagoeneko Wilson presidentearen hamalau puntuak, lehenengo Mundu Gerrari amaiera emateko erizpide nagusien artean besteak beste nazionalitateen printzipioa ezartzen zutenak. Estatu gabeko zein eremu urriko nazionalitateen auzia pil-pilean zegoen, ondorioz, nonahi. "Komunio-Batza"-ko jeltzaleek 1917 eta 1918ko hauteskundeetan izandako emaitza sendoek areagotu baizik ezin egin zitzaketen, bestetik, batzuen itxaropenak *eta* besteen bildur-kezkak (Fusi, 1984: 130). Katalan *eta* euskaldun burjes-atzerakoien "arazo"-tik "nazionalitate"-aren planteamendu politikoetarako urrats sendorik ematen hasia zen gainera, deklarazioen alorrean bederen, estatu mailako zenbait alderdi (33).

Giro horretan formulatu zituzten beraz, Eleizaldek *eta* beste hainbatek, hizkuntz plangintzazko beren xede-helmuga zehatzak. Praktikan noraino lortu zen ordea, hurrengo ia hogeitazko jardunean, euskal gizarte-urak euskaltzaleen amets txuri-gorritzko uharka horretara bideratzea? Noraino lortu zen, zinez *eta* benaz, euskarari *eta* euskaltasunari indar ematea?

Erantzuna ezin da baikorregia izan, euskaltzaleek beraiek gerra aurretik agerturiko hainbat datu, kezka *eta* bildur aintzakotzat hartu nahi badira. Horrela:

a) *Language shift* delakoari ez bakarrik buelta ematerik ez zen lortu, baizik *eta* aurrera egin zuen mintzaldatze-prozedurak (Altube, 1933: 89, 90; 317; 396; Belaustegigoitia, 1922: 113; Lizardi, 1986: 167; Aitzol, 1987, I: 33; II: 87; Ibar, 1935: 8; Charritton, 1984: 88). Mekanismo jakinek sortua zen *language shift* hori. *Eta*, euskaldungoak fenomeno horien nondik norakoa kontrolatu *eta* aldatzeko gizarte-aginpiderik eskuratu *eta* praktikatu ahal izan ez zuen neurrian, beren bidean aurrera jarraitu zuten, mintzaldatze-lan horretan, gizarte-urek.

b) Euskaldun askoren hizkuntz gaitasunak berak atzeraka egin zuen orobat, bere batezbestekoan, interferentzi bidezko erdal erasanaren ondorioz. Euskaldun arrunten erdarakadak (Altube, 1930) ez ziren jadanik mende-hasieran Azkuek *eta* Urruzunok erdi-txantxetan azaldu ohi zituzten modukoak bakarrik. Euskal idazleen artean ere geroz *eta* nabarmenago ari zen erdal erasanaren bestelako oihartzunik agertzen (34). Altubek (1933; 1936) *eta* Mokoroa "Ibar"-ek (1935) aurkitu uste zuten garbizalekeri erruaren zati handi bat, oro har, iturburu honi darion ur gisa hobe esplika daitekeelakoan nago: akats larriagoa zen oinarri-oinarrian idazle (*eta* ez idazle) euskaldun askoren hizkuntz trebetasunezko defizita gehiegizko garbizaletasunaren ondoriozko antzu-artifizialtasuna baino (35).

c) Gizarte-aldaketaren erpin *eta* zilbor izan ohi den hiria *eta* hiri-giroa ezin euskaldundu izan zen: hiritar mordoska on batek gurasoen (gehienetan baserrietatik kalera etorritako gurasoen) euskarari etxe-giroan *eta* lagunarte hurbilean gutxi edo asko eusten bazion ere ezin lortu izan zen langiro *eta* bizigune hiritar-industrialetan (Ariztimuño, 1987, I: 553;

II: 115) ahoz zein idatziz euskaraz jarduteko gai izango zen euskaldungo zabalik eskuratzea: ez, bereziki, buru-langile eta jakitun-taldeetan.

Are gehiago: euskalgintzaren aldeko plan, promozio-ahalegin eta ekintzak berak ere erdaraz bideratu ohi ziren, gaur egun ulertzea zail gertatzen den neurriraino (E. Arantzadi, 1935; J. M. Agirre, 1986). Kirikiñok esango zukeenez, beren teilatuari harrika jardun zuten horretan garai hartako euskaltzale askok.

Ez zuen osorik tiro huts egin, ordea, Oñatiko asmoak. Horrela:

a) *Corpus planning* delakoari dagokionez, eta Hendai-Hondarribietako tiro hutsaren ondotik, geroz eta irtenbide zentzuzkoagoak aurkitu zitzaizkion hizkuntzaren batasun-bideari: grafizazioaren alorrean aski finkapen-maila jaso eskuratu zen 1920tik aurrera; eta hitz-altxorren berrikuntzaz zein hizkuntza bateratuaz denaz bezainbatean, egia bada ere gauetik goizerako konponbide mirarizkorik lortu ez zela, orainago aski emankorrek gertatzen ari diren erizpideak landu ziren berebat.

b) Egia ere da “Euskal letrek”, kopuruz zein kalitatez, gorakada nabarmena izan zutela: eliz gaiez kanpoko idazlanak ez ziren ordurartekoan bezala olerti-esparrura mugatu; eta, ondorioz, hitz lauuko idazgintzan, elaberrietan, kazetaritzan zein antzerkigintzan ekoizpen jasorik eskuratu zen, hainbat eratako “peoi”-lana burutuko zuten euskal idazle izenordedunak gogor ugaritzeaz gainera (J. M. Agirre, 1986: 108; 122; 204; 306). Bai eta, bestetik, olerkien alorrean Lauaxeta baten bide-berritzeaz edota Orixeren herri-arnasez goimailaturiko *Euskaldunak* poemaz gainera Lizardiren erpina jo ere. Eta egia da, azkenik, euskarari buruzko ikerketak, filologi azterlanak eta informazio sistematizatuak ordurarte ez bezalako aurrerabideak egin zituela.

c) Irakaskuntzaren alorrean ere, debekua debekuaren gain eta lau saihetsetatiko etsai-giroan jardun behar izan zen arren, egia da irakasteredu elebidunen zehaztapenean eta luze-zabaleko berrikuntza pedagogikoan (36), ikasmaterialgintzan (37) eta ikastetxe-sortzen nahiz kudeatzen (38) bide-urratze sakon eta, 1960tik aurrera ikusi ahal izan denez, luzarora emankorra mamitu zela.

Guzti hori eta ondotoz gehiago egia izanik ere bistan dago ordea benetako emaitzak ahulegiak gertatu zirela, askogatik, Euskal herriaren etnolinguistikazko bizitasuna jaso eta amets-orduetan begiz jotako xede haiek eskuratzera iristeko. Nahi eta ezin horren zergatikoak azaltzerakoan posible litzateke, lehen hurbilketa moduan, kanpo-arrazoiak batetik eta barnekoak bestetik bereiztea. Kanpo-arrazoiei dagokionez ez dago ahazterik, besteak beste, bai nazioartean eta bai Espaini mailan gertaturiko zenbait egintzak eragin zuzena izan zuela “Oñatiko giro” haren garapenean. Horrela:

a) Nazionalitateen eskubideak, herri bakoitzak bere buruarekin zer egin erabakitzekeo eskubidea eta gainerako deklarazio sendoak, Europaren osakera politiko-territoriala “aspaldidaniko” herrien eta gainerako agregatu etnokulturalen mugekin hobeto uztartzen lagundu behar zutenak, lehen Mundu Gerran auzigai bihurturiko Erdi- eta Ekialde-Europako kasu jakinetara aplikatu ziren ia soil-soilik, aplikatu ziren neurrian. Versaillesko Tratatuarekin amaiera eman zitzaion, *de facto*, mugaberritze-lan horri.

b) Estatu mailako giroak berak, bertako nazionalitate-herriei autonomi aginpide sendo bat emateaz-edo, atzera egin zuen 1919tik aurrera, eta izoztaldi latza etorri zen 1923an. 1931tik aurrerakoak ere ezagunak dira: gerratea hasi ondoren lortu zen, ez lehenago, azken hogeitun urtean ia “datorren astean” etor zitekeen autonomia.

Datu horiek kontuan izan gabe orduko euskalgintzaren ajeaz eta txepelaz, belaunaldi euskaltzale haien “berezko” bekatuaz hitzegitea, gure artean 1960tik aurrera maiztxo hitzegin izan den moduan, gogo gaiztoz edo arinkeriaz bakarrik egin daiteke.

Badago ordea hainbat zertzelada, orduko euskalgintzaren xede-asmo eta saio-ekintza haien gibel-erraietan, erruak besteri (betiko *bestari*) boteaz nekez konpon daitekeena: ez orduko erruak, ur joanak ez bait du errotarririk mugitzen; eta ez oraingo edo bihar-etzietako euskaltzaleok ere, ikasbide zuhurrak alde batera utziaz, egin ditzakegunak. Horietarikoak direlakoan nago, besteak beste, ondoko bi hauek:

a) Etnokulturazko ezaugarri galdu edo galbidekoei eutsi nahiaren eutsi nahiaz euskaltzaletasunezko ekintza eta egitasmo desberdinen egingarritasun-mailak, garrantzia eta lehen-tasunak behar bezain xehe eta zehatz bereizten jakin ez izana. Herri guztietan —ez gurean eta gurearen antzekoetan soilik— gertatu da modernizazioa lekuan lekuko etnokulturaz markaturiko prozedura eta elementuen galtzaile. Gizarte-molde berrietan kasurik hoberenean ere balio marjinala baizik ezin gordeko zuten arrasto etnokultural batzuk bizirik mantentzen edo biziberritzen egindako ahaleginek ez zuten, itxura denez, kultur osagai horien korrelato modernoetan euskara sartzeko pareko esfortzurik jaso. Adibidetzat kirol-, entretenigarri- eta joko-alorra hartzea zilegi balitz, horrela, ohargarria da 1920tik aurrera bederen (Fusi, 1984: 20, 21; Mokoroa, 1935: 35; Agirre, 1986: 314) hainbateko gizarte-oihartzuna jasoko zuen kirol-espektakuluen mundua (futbola, txirrindularitza, boxeoa, atletismoa) euskalgintzaren ezarpen-eremutik noraino apartaturik hazi eta garatu zen ikustea (Zinkunegi, 1928). Ezer gutxi zezakeen horien ordez, ez horien osagarri, eraturiko euskal herri-kirol jator baina xotilen aldeko langintzak. Antzekorik esan ahal izango litzateke, moraltasunezko konfrontazio-asmo berarizkoa erantsiaz oraingoan, entretenigarri eta dantza-kontuetan eramandako bideaz: euskaldun jator izateak eginbide, karga eta obligazio jakinez gainera dantza-molde “garbian” bakarrik ari izatea esijitzen bazuen ezin gero harritu “dultze-meneo” guztia edo gehiena erdaraz bideratu eta euskaltasunaren etsai gertatu izanaz (Mokoroa, 1935: 59). Mendiak su hartzen duenean beharrezkoa izan ohi da, zuhaitz guzti-guztiak nola salbatu asmatzen ibili ordez, ahalik zuhaitz gehienak (baso-oihan garrantzitsuenak bederen) salbatzeko neurri konkretuak hartzea.

b) Hizkuntz plangintzaren mailan ezarritako xedeak ez ziren betetzen batere errazak. Eta ez hizkuntz aldetiko eragozpen-trabengatik bakarrik. Are gehiago: hizkuntz alorraz kanpokoak ziren, itxuraz, traba-debeku larrienak: euskal abertzaletasunak (bere zentzurik suabazabalenean hartuta ere) ez zuen behar adinbateko gizarte-indarririk ez *language planning* hura, eta ez *identity planning* osoa, hezurmamitu ahal izateko. J. A. Fishmanek (1985: 48) argiro azaldua duenez “ethnicity maintenance [...] requires strong institutional support, as does language maintenance, rendering the other ethnicity inoperative (consensually unacceptable) in certain functions [...] if two ethnocultural systems are to operate [...] on a stable and widespread basis”. Oñatiko Biltzarrean erdara (eta erdal nortasun-jokamoldeak) zenbait alorretan “consensually unacceptable” egitearen aldeko pauso sendorik eman nahi izan zen arren ez orduan (39) eta ez, batez ere, gero lortu zen gutxienezko adostasun-mailarik: P. Baroja (1919) honegatik, G. Balparda (1917; 1918; 1932) horregatik eta T. Meabe (Azurmendi, 1979: 104) hargatik, askotxo ziren etxekoen artean ere horrelako *institutional support* emateko prest ez zeudenak. Dela “triangulazio politikoa” (Payne, 1974; Fusi, 1984: 21; 158) edo dela ezker-eskuindarren elkar hartuzko antvizcaitarrismoa, bildur zitzaion plano politikoan erdara hutsean oinarrituko ez zen edozein formulaziori.

Bazegoen hartarako, aldian aldiko haize-erauntsi politikoez gainera, euskaltzaleek beraiek agian errazegi gaintu uste zuten eragozpenik: “nationalism was not only a movement of the masses and for the masses but, rather, also a movement to replace one elite with another, one sociocultural philosophy with another and one political-operational system with another” (Fishman, 1972: 60). Interesatu denak ez zeuden noski lo, eta asko ez zeuden *replace*-lan

horretarako prest (Giles et al., 1977: 319). Ez da hau, agian, euskalgintza-saio orok bere baitan duen muga-eragozpenik ahulena. Broussainek (1918; Charritton, 1986: 317-8), Eleizalde (1918: 430), Urquijok (1920: 17), Lizardik (Agirre, 1986: 172; 217; 230), Aitzolek (Ariztimuño, 1987, I: 45-6) eta Etcheparek (Charritton, 1984: 58; 131) ahuldade-gaitza hain begien bistan izanik ere ez dirudi praktikan eragozpen-hesi hori gainditzeko ekintza-bide konkretu eta *tempo*-formula egokirik diseinatzera iritsi zirenik: ez *replacement* baterako eta ez, euskal indarren luze-laburrak ezaguturik agian zentzuzkoago gerta zitekeenez, euskaldungoari bizi-iraupenezko itxaropen zinezkorik eskaini ziezaiokeen elkarbizitza egonkor samar baterako ere.

Korapiloa ez zuten, bistan dago, erabat askatzen asmatu. Euskal mataza lehen baino trabatuago utzi izana ere posible da, honetan edo hartan, egia izatea. Aurreko belaunaldiek eskuratu zieten ondare-multzoa baino emaitza istimagarriagorik eskaini digute ordea, euskalgintzaren alorrean, inoren baino areago beraien oinordeko garen mende-amaiera honetako euskaltzaleoi: batasun-asmoz eta jatortasun-ereduz ernaldutako gerora begirako euskal gogo, bereziki. Ezin belaunaldi guztiez esan daiteke, labur zurrean eta ene aburuz, beste horrenbeste.

OHARRAK

(1) Cf. S. Onaindiaren Euskal Literatura (V), 17.or. cf. orobat Mitxelenaren esaldi hura: "*exkaxtat hartu gaituzte, eta kitto*".

(2) J. Azurmendiren (1972: 36) eritziz "gure gazterientzat *de facto* mundua berekin edo beren gurasoekin hasi balitza bezalatsu zegoen: herbesteak bakarrik zirudien lehenagokoa".

(3) Amaiera gisa 1937 hartzeak begien bistako arrazoiak baditu ere ilunagoa da epe-hasiera 1896-98 urte-inguruan jarri nahi hori. Balegoke ordea, bere ahulean ere, euskalgintzaren ikuspegitik fetxa-garai hori azpimarratzeko arrazoirik. Horrela

a) Orduan ematen zaio euskarazko irakaskuntzari, kale-giroan eta berariazko xedez, hasiera jakina: Bilboko *Euskal ikastetsea* 1896-7an hasten da. Ikasmaterialgintzari dagokionez Ormaetxearen *Agakia* 1896an kaleratzen da, eta Aranaren *Umiaren lenengo Aizkidia* izeneko eskola-liburua 1897an argitaratzen. 1898koa da Azkueren *Método práctico para aprender el vascuence vizcaíno y guipuzcoano*.

b) Hegoaldeari dagokionez 1897an abiatzen da orobat euskara hutsezko kazetaritza, bai aldizkari mailan (*Euskalzale*, 1897) eta bai propaganda-asmozko zabalkunde-lanean (1897rako *Egutegi Bizkaitarra*, 1898ko *Lenengo Egutegi Bizkaitarra*). Elaberriak ere orduantxe (1898) du, *Auñemendiko Lorea*-z, bere hasiera.

c) Euskal herriaren etnokulturazko batasun-azalpena, *Zazpiak Bat* lemapean bildua, orduarte ez bezalako onarpen-aitormena eskuratzen ari zen orduan (Donibane Lohitzuneko 1897ko Euskal Festetan kasu) agintaritzakoen aldetik. Handik gutxira Hendai-Hondarribietako bilkuretan eta Eskualzaleen Biltzarrean hezur-mamituko zen mugaz alde bietako euskal eragileen harreman-sendotzeak ere urte-inguru horretan du piztualdia (1897an, seguru, Azkue-Broussainen kasuan).

d) *Corpus planning*-en aldetik eragin bizia (bai 1937ra artean, Euskaltzaindiak 1920an hartutako erabakien ildotik, eta bai, hainbat puntutan antzaldaturik, gaurdainokoa ere) izandako *Lecciones de ortografía del Euzkera Bizkaitarra* orduan (1896) argitara zen orobat. Euskal *Ikasola* edo Hizkuntz Akademia sortzeko asmoari ere indar berriz ekin zitzaion, bai Azkueren eta bai Gipuzkoako Aldundiaren aldetik, 1897an.

e) Euzko Alderdi Jeltzale sorberria orduan (1898an) aurkeztu zen lehenengo aldiz hauteskunde-lehiaketara: euskalgintzak orduarte ez bezalako oinegotura eta erreferentzi puntu instituzionala izango zuen aurrerantzean, Nafarroako *Asociación Euskarak* edota Sagarminagaren *Euskalerrriak* ez bezala etengabeko presentzia eta euskaldun-jende xehearen luze-zabaleko mobilizazioa eraginez.

Asmo orokorren eta ideologiazko xede-azalpenen garaitik ekintza konkretuen aldira pasa zen, neurri on batean, 1896-98 urte-inguru horretan.

(4) Kirikiño, Lizardi eta Aitzolen idazlan-bildumen argitalpena, Labayruren eskutik lehena eta Ereinen kontura beste biak, aurrerapauso sendoa izan dira alde horretatik. Iparraldeko idazle eta kultur eragileei gagozkiela, bestalde, J. Etchepare medikuaren idazlan-bilduma eta Azkue-Broussainen arteko elkarridazketa aski era osatuan paratu berriak dizkigu, lehenago P. Lafittek eta J. Intxaustik Hiriart-Urrutyren lanekin hasitako bideari eutsiz, P. Charrittonek. S. Aranaren idazlan guztien bilduma, *Euskalzale-Ibaizabal* aldizkariaren eta gerraurreko *Euskera* agerkariaren berrargitalpenaz gainera, lagungarri sendoa gertatu da orobat. Hor dago, bestalde, Yon Etxaidek bere aita zenaz eginikako idazlan mamitsua. G. Arrienek garai hartako irakaslanaz aurrera daraman azterketa ere argigarria da oso.

(5) Gipuzkoako "familias antiguas" direlakoez eman izan den azalpena (Eleizalde, 1918: 430) posible da garai batean, hizkuntz erabilpenaren arrasto nagusiaz denaz bezainbatean, diglosiazko herritar elebidun hauen jokamolde-eredu aski zehatza gertatu izana. Azalpen horrek berak gogoratzen digunez "el Euzkera no solía servir más que para hablar a los niños hasta los diez años, y a las muchachas de servicio. Una barrera social, en suma".

(6) Larramendik, Kardaberazek, Moglek eta are Pascual Iturriagak ematen dituzten datuen arabera litekeena da XVIII. mendearen bigarren erdialdea gertatu izana, Gipuzko-Bizkaietan, euskara galtzeko arrisku-

-egoera berri baten ataria. Ibar-ek begi zorrotzez igarriko zuenez beste era batera gertatu zen ordea, bere oinarriko zantzuetan, Araba eta Nafarroako euskara-galtzea: "no basta la geografía, ni bastan los acontecimientos sociales y políticos de ese siglo para explicar satisfactoriamente el fenómeno de la deseuskeringización de Alava y Navarra" (Mokoroa, 1935: 135). Bi kasu horien bilakaera ulertarazteko oraindainokoa emandako esplikazioak ez zaizkit, halere, hain gogo-betegarri iruditzen.

(7) R. M. Azkuek esandakotzat aitortuz horrela ematen du Jean Etcheparek (Charritton, 1984: 90) aldakuntza horren azalpena: "lehen mende batez bezenbat gal (...) dezake orai euskarak borts urtez".

(8) Bizkai aldeari dagokionez J. L. Hernandez Marcok (1986: 16) honela adierazten du hiri eta herrietako biztanle-ugaritze hori: "el mundo urbano —considerando como tal a los núcleos mayores de 5.000 habitantes— que en 1860 sólo significaba el 17,5 % de la población vizcaína, será nada menos que el 70,4 % en 1930".

(9) Honela azalduko zuen Txomin Agirrek (1899: 250) gizarte-statusarekiko lotura-molde galgarri hori: "Eztago erritsuetan bertan irakasle, osagile ta iakadun guztien iarduna entzutea baiño: beti diardue erderaz, danak Izpazterren iaio ta asiak badira ere. Eztago euskerea ondo ikasten zeintsuk saiatutzen diran begiratzea ezpada: lau zoro, edo zorrotzat begiratutzen iakuen erritar banakak. Euskerea baserritarkerizat dauke oindiño euskaldun askok, eta baserritar izate ori ezta gogozko gauzea erri andietako gizon arrotsuentzat".

(10) Campionek Irungo 1903ko Euskal Festetan "tres casos típicos, y por fortuna excepcionales, de repudio deliberado del baskuenze" (Campion, 1907: 176) azaltzerakoan ez du, besterik badio ere, hain salbuespen bakanik plazaratzen, luze-zabalean gertatzen ari zen fenomeno bat adibide-sorta aski konkretu eta zorrotzez hornitzen baizik. Eibarko beharginena omen den hurrengo ateraldi hau, bereziki, oso kontuan hartzekoa da: "Hablamos vascuence porque no sabemos castellano. Nosotros hablaríamos con muchísimo más gusto en este idioma, pero querer no es poder".

(11) Eskualde euskaldunetako jende xehearen hizkuntz egoerari dagokionez badirudi ordurarteko ezaugarri nagusia (azken hiruzpalau mendeetakoa behintzat) elebitasunik gabeko diglosia (Fishman et al. 1985: 43) izana dela. Litekeena da halere bertako "commercial, religious, military and civil service" eliteek, proportzioan bestetangoak baino hazixeagoak izateaz gain, euskaldungoaren zati ohargarri bat jadanik bere hizkuntz orbitara erakarria izana: Gaztelako Koroaren goi-mailako politika- eta eliz karguetan goitxodanik ageri den euskaldunen partaidetzaz gainera Ameriketako lur-irabazteak lehenik eta kolonizatzeak ondoren, Austriatarren Europan zeharko presentzia politiko-militarrarekin batera, hainbat euskaldunen luze-zabaleko parte hartzea eragina izango dute erdal munduarekiko lotura-bide ziren merkataritzan, industrian eta soldadutzan. "Zati ohargarri" hori ez zen ordea, XIX. menderarte, Euskal herriaren osakera etnokulturala errotik aldatzera iristeko gai izan. S. Payne-k (1974: 38) adierazi izan duenez "durante casi un milenio, los vascos habían mostrado una notable capacidad para incorporar progresos técnicos del mundo exterior sin alterar los fundamentos de su propia cultura".

(12) Badirudi inon baino bizkorragoa izana dela *language shift* hau (Campion, 1907: 154) Nafarroan. Horra hiru belaun arteko mintzaldatzeko osabetea nola adierazi izan den: "Con fría insensibilidad presencian la instalación en sus hogares de generaciones que les son absolutamente extrañas por su modo de hablar; la familia, lingüísticamente homogénea antes, es substituída por otras dualistas en el período intermedio, de las que hay tantos lamentables ejemplares en Nabarra: los abuelos hablan exclusivamente el baskuenze, los hijos mal el baskuenze y el castellano, los nietos exclusivamente el castellano".

Hartara bultzatzen zuten gizarte-mekanismoak parte on batean desberdinak izan arren, Gipuzkoan eta, batez ere, Bizkaian begien bista-bistan gertatzen ari zen hiru belaunaldiko *language shift* berberaren aurrean gaude. Bizkaiko kasuan ezaguna da Arana (1965: 1.296) bide-urratzailearen erdi-etsipen erdi-haserreko jarrera: "Zeure semioi eztautsezu irakasten, zeuri zeure gurasuak irakatsi eutzuben izkerea. ¿Gura dozu zeure semioi zeure gurasuakin ezítezan aturau (entenditu), ala?"

(13) Cf. E. Arriagaren *Léxico bilbaino* (1896; 1960) edota, orainagoko iturrietan, M. Zarateren Txorierriko gaztelaniaren azterketa.

(14) Balegoke gainera, XIX. mendeko gora-beherak soziokulturazko ikuspegitik aztertzeke, kontutan hartu beharreko bestelako jendakirik. Nekez esplikatuko litzateke bestela, izan ere, Ulibarri perratzailearen jarduna edota Xempelar fabrika-langilea "iya guriak egin du" bertso-kantari.

(15) Euskalgintzaren inguruan zentratueniko *Asociación Euskarak* eta F. Sagarminagaren *Euskalerría* (1880tik aurrera *Unión Vasco-navarra*) Elkartek ez zuten, jakina denez, politika mailan hedadura zabal eta iraupen luzeko oihartzunik eskuratu. Ezintasun horren kausa posibleez ikus, besteak beste, R. Ciervide (1983: 41-2).

(16) Kolore eta sentiera desberdineko foruzaleek, batez ere 1876tik aurrera, beren idazlanetan Euskal herriaren iraganaldi jator-pizgarri-bikainaz markaturiko ildotik "azken ondorioetaraino" iristea izan zen, Aranaren beraren ustean, formulazio hori: behinolako Euskal herri aske, ausart, txalogarri hari parez pareko etorkizun duin bat opa izatea zegokion, asaba zaharren baratzea maitekiro landu eta berriro eusko-sendiaren bizi-iturri oparo bakar bihurtzea.

(17) Hara fuerozaleek hain gogozkoak zituzten *Fiestas Euskaras* haiek Aranek nola ikusten zituen: "Mucho tamboril... mucha boina. Pero nada que merezca la pena: nada de doctrina, nada de bases políticas patrias, nada de sólido y fundamental. Como todos los baskongados, así sean extranjeristas y anticatólicos (...) se unan (...) para danzar un auñesku, comer en Txatxañamendi o dar un vivita a los *Fueros* (que cada *quisque* entiende a su manera)... salvada la Patria!!!" (Arana, 1980: 1259).

(18) Euskal herriaren historiari eza horrela adierazi izan da, besteak beste, mende-hasieratik hona: "Bizkaya (...) invoca en vano la sanción de la Historia porque carece de ella, porque su Historia, como la Historia toda del Pueblo Vasco, conserva todavía impenetrable el sentido y aparece ante nosotros misterioso e indescifrable (Arana, 1980: 1297). "El pueblo euskaldun no ha cantado la odisea de sus peregrinaciones, ni la epopeya de sus batallas, ni el drama de su historia: nada sabemos de él que él mismo nos haya transmitido. Es un pueblo mudo" (Campion, 1907: 291). Berrikitanago emandako azalpenak ere bide beretsutik doaz. Horrela J. Azurmendi (1977: 44): "Orain arte katetan egon gara. Katetik eraman gaituztelako, batik-bat. Baina geu kate artean genbiltzalako ere bai. Gainean generamatzkien mila eratako zentsurak, urteen eta pisuaren poderioan, barrura sartu zaizkigu. Abandoz beteta dago gure iraganaldia. Gure historia, gure historia falta da".

Mutu-izate horren arrazoiak baliteke gurean ere bestetarako (Kolarz, 1946: 44; Fishmanek in 1972: 109 jaso) eman izan diren arrazoiekin loturik egotea: "the so-called peoples without history also initially lacked two of the major forces which are essential for the creation of history in modern days: their own upper classes and their own centers of ethnic culture and communication (...). The peoples without history were peoples without town life".

(19) S. Aranaren formulazio gogorak irentsi ezinak gertatzen zitzaizkion, itxura guztien arabera, euskaldun-jende xehearen zati handi bati ere. Bestek (Fishman, 1972: 15) bestetarako aipatua duena aski hurbiletik kunplitzen bide zen hemen ere: "they were interpreted as self-serving upper-class, intellectual, or urban fabrications, if they were understood at all". Iberoko Évangelistak (1906: 9) Angel de Zabalarri egindako eskutitzean azaltzen duen giroa ere bide beretsutik doake: "Yo estoy verdaderamente espantado de la indiferencia que muestra Navarra con respecto a las tres Provincias hermanas en estos solemnes momentos". Handik urte-mordoska batera ere, Lausanne-n ospaturiko Nazionalitateen Hirugarren Biltzarrean euskal Ordezkaritzak (Eleizalde, Eizagirre, López Mendizabal, 1916) esandakoak aintzakotzat hartu behar baditugu, indarrean jarraitzen zuen, itxuraz, traba-eragozpen horrek: "el mayor obstáculo que encuentra la difusión de nuestras ideas patrióticas es la indiferencia y la ignorancia de los baskos, que llaman su patria a un país que no es el suyo".

1930 ingururako ondotoxo aldatua zegoen Bizkaia-Gipuzkoetan, itxura denez, gogo-giro hori. Ez Euskal herri osoan ordea, eta modernizazio ahulaz gainera erdalduntze-eraso sendoa jasandako bazterraldeetan inon baino gutxiago. Abertzale euskaltzale sutsu batek (Ariztimuño, 1986: 40) aitortuko zuenez, "una pregunta amarga se escapó de sus labios: «¿es qué yo, es que los roncaleses somos vascos, a caso?»".

(20) K. Mitxelena (1985: 183) inoiz aipatu izan duenez, "para el movimiento de ideas que tuvo su principal foco en Alemania desde finales del siglo XVIII, *nación* viene a ser coextensivo con comunidad lingüística".

Gure artean bisitari begierne eta bazter-ikusle zorrotz baino zerbait gehiago izandako Wilhelm von Humboldt bera hau esatera iritsia zen: "La división del género humano en naciones no es otra cosa que su división en lenguas" (Gesammelte Schriften, ed., A. Leitzmann, VI, 126, or.).

(21) Esaldi gutxi dago Aranaren idazlanetan, nere jakinaren gainean, honako hau (1980: 1296) baino garratz mingarriagorik: "Euzkerea ezta jien eun maketok kalte andija egiten dautsae geure Aberijari. Andijagua da, euzkerea dakijan maketo batek bakarrik, egiten dautsan kaltia".

(22) Egiteke dago oraindik, eta merezi luke, nazionalitate hitzak eta kontzeptuak Euskal herrian, gutxienez P. Egaña senadorearen 1864eko jardunaldi (García de Cortázar, 1980: 120-1) liskartsutik 1937ra bitartean, izandako ibilera eta bilakaeraren azterketa.

(23) Baita jeltzaleen artean ere, nahiz *Aberri*, *Euzko-Deya* (1921, VI, 49) edo *Jagi-Jagi* giroko eta han-hemenkako kontradibide eta muturreko formulazio alternatiboek behin baino gehiagotan besterik uste izatera bultzatzen. Ikus adibidez, "españolismo-aldia" pasa ondoko garaian, JEL aldizkariaren 1908ko 6. zkian eta hurrengoetan, *nacionalismo social* izenpean F. Belaustegigoiak abertzaletasunaz ematen duen azalpena. Eskuak bete adibide eman ahal izango litzateke abertzaletasunaren formulazio soziokultural horrek jeltzale ezagun askoren baitan ere norainoko lehentasuna izan zuen adierazteko. Askiz litzateke horretarako Kizkitza, L. Eleizalde, Kirikiño, E. Landeta, S. Altube, X. Lizardi, Aitzol eta, orohar, euskalgintzan gailen agerturiko jeltzale gehienek idazkiak eskuztatzea.

(24) "Conversión autonomista de la democracia de Bilbao"-z, ikus J. P. Fusi (1984: 154-5). Abertzaleek giro-aldaketa hori nola antzeman eta bizi izan zutenaz, bestalde, ikus E. Arantzadi (1935).

(25) Zehaztasun aski dokumentatuak in Estornes-Zubizarreta (1983: 16; 20). Joera desberdinetako jendakien indar-biltzearen aitormenez, Fusi (1984: 145).

(26) Sabino Aranagandik jasoa izango zuen Eleizaldek, seguru asko, euskalgintza bi lan-eremu horietan banatzeko idea. Abandotarrak egina bait zuen 1901ean, Hendaiako Bilkuran, ekintza-sail bien arteko bereizketa aski argi eta sistematikoa (Arana-Goiri, 1908: 180-183; 193-195). Beharrezkoa ikusten zuen Sabinok, orduko bere txostenean, batetik euskarari gizartearen konpartimentazio-esparru propio bat berreskuratzea, barruti horretan euskara euskaldunentzat beharrezkoa gerta zedin; eta, horren lagungarri, lehiakiderik gabe erabili beharreko esparru horretarako gaitu eta eguneratu beharra ikusten zuen bestalde euskara (ortografiaz, hitz-altxorraz eta abarrez). Bere hitzetan esateko (Arana-Goiri, 1908: 182) "para que el euzkera se levante y viva son indispensables a la vez dos cosas: hacerlo necesario para la vida, en grande o en pequeño círculo, dentro de su propia tierra, y hacerlo apto de satisfacer esas mismas necesidades". Lehenengo lanerako, *status* plangintzarako alegia, euskaltzaleak (bere *euzkeráfilo*-ak) elkartu eta organizatu nahi zituen; *corpus* plangintzarako, berriz, euskalariak (*euzkerálogo*-ak). Bere esanean eginkizun biak —eta ez bigarrena soilik— hartu behar zituen Hendaiako Bilkurak kontuan: "este Congreso, además de euzkeralógico, es euzkeráfilo". Eta ez nolana kontuan hartu ere: "este Congreso, si es euzkeralógico, lo es por ser euzkeráfilo; quiere que el euzkera viva, se fortalezca y desarrolle y se propague en su tierra, y porque quiere su vida dispónese a estudiarlo para librarle de las causas de su muerte" (Arana-Goiri, 1908: 182). Lehentasun-erizpide honek egungo egunean dukeen balio-indarraz ikus Fishman (1987: 423).

(27) Aitzolek (Ariztimuño, 1987: 78-80) azalduko zuenez "Aranzadi, Barandiarán y Eguren (son) uno de los exponentes más significativos de nuestro resurgimiento nacional. Este mismo misterio de nuestro origen racial es una auténtica demostración de abolengo de nuestra estirpe nacional. Además de prestar con estos trabajos científicos un beneficio incalculable a la cultura vasca, sale con ellos la teoría nacionalista euskaldun robustecida, al vincular a los vascos de hoy con los que existieron hace más de 7.000 años".

(28) Ikus, 1895etik aurrera indartzuz zetozen joeraren adierazgarri, I. Estornés-en (1983: 172) azalpena: "campana de reimplantación del txistu —instrumento entonces en vía de extinción— acordada en el Congreso de Oñate".

Edota beste argibide hau: "en 1927 relanza Eusko Ikaskuntza la campaña difusora del txistu, mediante distribución gratuita".

(29) Berririo Aitzol (Ariztimuño 1987: 85-87) dugu berri-emale: "Si con la decadencia desaparecía la hilandera que hilaba, con el renacimiento vuelve a reencarnar aquel magnífico espíritu de las «irules» en las modernas «poxpolinas». Estas, las de hogaño, hilan los hilos finisimos que llegan al corazón del vasco y van tejiendo, sin cesar, la túnica inconsutil de la patria una".

(30) Ig. de Zubialdek (Hermes, 1917: 316-9) azalduko zuenez "la nueva corriente se inspira en otra [tradicción] más honda, más humana, adoptando un nuevo elemento nunca utilizado hasta entonces: la canción

popular. [...] Los pueblos eslavos, seguidos de los escandinavos, [...] se inspiraron en el folk-lore para sus composiciones del género más elevado y crearon la música nacional". Arana Martijak (1976: 176) gogorazten digunez, bestalde, "en 1912 las tres Diputaciones convocan un concurso para premiar las dos mejores colecciones que, grabando las melodías populares en pentagrama, las hagan resistir al vendaval extraño que amenaza arrastrarlas para siempre".

(31) L. Chalbaud-en (1918) hitzetan esateko "lo propio suyo en la constitución social es ese régimen de la troncalidad, de la comunicación, de la libertad de textos, legal o meramente tradicional que hallamos en el caserío".

(32) X. Lizardik emana digu agian, inork baino zirrargarriago, biltze-jardun honen barne-emozia:

"Geroztik ari nazu / auts zaarrak astintzen;

aiton-amon guztien / ipuiak jasotzen;

erriaren pitxiak / magalean biltzen.

Ez baita il gure Erria, / zutitu gaitezen!"

(Euskal Pizkundea, VIII)

(33) J. P. Fusik inoiz aipatu izan duenez (1984: 155) "el PSOE incluyó en 1918 en su programa el reconocimiento de las nacionalidades ibéricas, incluyendo entre ellas la vasca". Hogeitamarreko hamarkadan ezaguna da PC-k (Astigarribiarekin-eta) noraino joko zuen bide horretan barrena.

(34) Oso biziak dira, alde horretatik, P. F. Irigaray "Larreko" (Villasante, 1961:376) eta E. Zubiri "Mane-zaundi" (Villasante, 1961:371) nafarren ikusmoldeak.

(35) Erru-bilaketa horri ekiterakoan biziki gomendagarria litzateke, orain ere, X. Lizardiren "Gure bideko mugarriak" (1986: 401-8) idazlanak sabelean daraman hipotesia aintzakotzat hartzea.

(36) Miguel de Alzo-ren ibilbidea, bereziki, eragin handikoa izana da gure artean.

(37) Isaac Lopez-Mendizabal, bereziki, aski emaitza onuragarriak eskainia da alor honetan. Oraingo liburuek balukete agian, laburrez eta jatorrez, berak prestatutako zenbaitetatik zer ikasirik.

(38) Ekimen publikoaren alorrean Bizkaiko Auzo Eskolak lirateke, seguruenik, begiratu pausatuen aztertu beharrekoak. Ekimen pribatuak, berriz, Muñoaren Donostiako esperientzia luzea eta Bizkaiko (1932tik aurrerako) Euzko-Ikastola-Batza.

(39) Oñatiko Biltzarrak sortu zituen jarrera desberdinei eta txinpartei buruzko azalpen arras interesgarria in Bustintza (1984: 194-6).

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, Domingo: 1899. Zergaitik galtzen dan euskerea. *Euskalzalte*, III, XXXII, 250; 258.
- AGIRRE, Joseba Mirena (X. Lizardi): 1986. *Kazetari-lanak*. Idazlan-bildumaren prestatzaile Lurdes Otaegi. Donostia: Erein.
- ALTUBE'tar Seber: 1921. Izkuntza Jakintzia ta Euskeriaren Bizitzia. *EUSKERA*. II. 1.zkia. 1-49.
- : 1930. *Erderismos*. Bermio: Gaubeka.
- : 1933. La vida del euskera. *EUSKERA*. XIV, IV.zkia. 299-397.
- : 1936. Más sobre la vida del euskera. Bañero euskeraren bizitzari buruz. *EUSKERA*. XVII, I-IV. 1-192.
- ARANA-GOIRI'tar Sabin: 1965. *Obras completas*. Buenos Aires. Bigarren argitaraldia: Donostia, Sendoa, 1980.
- : 1908. Discurso leído en Hendaya por don Sabino de Arana y Goiri, con ocasión del Congreso, que, para tratar de la unificación de la Ortografía del Euzkera, se celebró en dicha villa el día 16 de Septiembre de 1901. *JEL* 1908, 180-183. *JEL* 1908, 13.zkia, 193-195.
- ARANA MARTIJA, José Antonio: 1976. *Música Vasca*. Donostia: SGEP.
- ARANTZADI, Engrazio (Kizkitza): 1935. *Ereintza. Siembra de Nacionalismo Vasco*. Zarautz: Itxaropena.
- : 1932. La casa solar vasca. Zarautz: Editorial Vasca.
- ARANZADI, Estanislao: 1902. Reconstitución del pueblo euskalduna en la reconstitución de la lengua. Bilbao: Astuy.
- ARIZTIMUÑO, José (Aitzol): 1986. *Idazlan guztiak: La democracia en Euzkadi. Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*. Donostia: Erein.
- : 1987. *Idazlan guztiak: Artículos en los diarios Euzkadi y el Día. Euskal Kultura Pizkundearen eta Kristau Gizartegintzaren Eragile. I, II*. Donostia: Erein.
- ARNOPE: 1932. *Argia*, 1932-X-9.
- ARRIANDIAGA, Manuel (Mibibus): 1935. "La vida del euskera" (Jarraipena). *Euzkerea* VII. VIII. 489-500.
- ARRIEN, Gregorio: 1983. *La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares (1932-1940)*. Bilbo: Onura.
- : 1987. *Escuelas de Barriada. Pensamiento escolar y autonomía en Vizcaya: escuela vasca y sistemas educativos (1898-1936)*.
- AZKUE, R. M. (Eketa): 1902. Sendagaiak. *Ibaizabal* 1902-I-26; 1902-II-2.
- : 1917. *Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular*. Bilbo: Garmendia.
- : 1930. Documento interesante, manuscrito de P. Broussain. *EUSKERA*. XI. II-III. 229-238.
- : 1934. Observaciones acerca de EUSKALTZAINDIARI de Altube'tar S. *EUSKERA*, XVI. 144-149.
- AZKUE-BROUSSAIN elkarridazketa: Ikus CHARRITTON, 1986.
- AZNAR, Manuel de: 1917. De las ciudades y los pueblos. *Hermes* 41-45.
- AZURMENDI, Joxe: 1972. Sarrera politikoa. In *Herriaren lekuko*, biltzaile J. M. Torrealdai. Donostia: EFA-Jakin.
- : 1977. Sarrera. *Euskal Idazleak Gaur*. Oñati. Arantzazu. Jakin.
- : 1979. *PSOE eta euskal abertzaletasuna*. Donostia: Hordago.
- AZURMENDI, Mikel: 1987. *Euskal Nortasunaren Animaliak*. Donostia: Baroja.
- BALPARDA, Gregorio: 1917. Los caracteres de una cultura vizcaína. *Hermes*, 1, 59-63.
- : 1918. *Errores del Nacionalismo Vasco*. Madrid: Juan Pueyo.
- : 1932. *La crisis de la nacionalidad y la tradición vascongada. Reflexiones sobre la política de los estatutos*. Bilbao: Casa de Misericordia.
- BARANDIARAN, J. M.: 1960. *El mundo en la mente popular vasca*. (3 tomo). Donostia: Auñamendi.
- BAROJA, Pio: 1919. *Momentum catastrophicum*. Madrid: Rafael Caro Raggio.

- BELAUSTEGIGOITIA'tar Perderika: 1922. Euskerazko eskolak. *Lenengo Euskalegunetako Itzaldia*. Euskaltzaindia. Bilbo: Euzko-Argitaldaria.
- : 1936. *Hacia una lucha verdad pro-euskera*. Bilbao: Talleres gráficos Jesús Alvarez.
- BROUSSAIN, P.: 1918. Ikus Azkue, 1930.
- BROUSSAIN-AZKUE elkarridazketa: Ikus CHARRITTON, 1986.
- BUSTINTZA, Ebaristo (Kirikiño, Bloa): 1981. *Egunekoa*. Bilbo: Labayru-Sutondoan.
- : 1984. *Edo geuk edo inok ez. Euskeraren alde*. Bilbao: Labayru ikastegia.
- CAMPION, Arturo: 1907. *Discursos políticos y literarios*. Iruñea: Erice y García. Berrargitalpena 1976an, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca. Textos Vascos de sociología y política.
- CARR, Raymond: 1966. *Spain 1808-1939*. Ingalterra: Oxford University Press. Itzulpena: Barcelona: Seix Barral (1979).
- CHALBAUD, Luis: 1918. La familia como forma típica y trascendental de la constitución rural vasca. En *Actas del Primer Congreso de Estudios Vascos*. Bilbo: Eusko Ikaskuntza. Primer Congreso de Estudios Vascos.
- CHAMBERLAIN, Houston S.: 1899. *The Foundations of the Nineteenth Century*. New York: Fertig.
- CHARRITTON, Piarres: 1984. *Jean Etchepare jaun mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I. Euskal gaiak*. Donostia: Elkar/Eskualzaleen Biltzarra.
- : 1986. *Resurrección María de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa*. Bilbo: Euskaltzaindia. Iker 4.
- CIERVIDE, Ricardo: 1983. Posicionamiento de Arturo Campión ante el tema lingüístico y la pérdida de los Fueros en el País Vasco en 1876. Estella: *FONTES LINGUAE VASCONUM*. 41-42. Institución Príncipe de Viana.
- DAVIS, Horace B.: 1972. *Nacionalismo y socialismo*. Barcelona: Ediciones Península.
- ELEIZALDE, Luis: 1911. *Raza, lengua y nación vasca*. Bilbo.
- : 1914. *Países y razas. Las aspiraciones nacionalistas en diversos pueblos*. Bilbao: Grijelmo.
- : 1918. Metodología para la restauración del euzkera. Bilbo: Eusko Ikaskuntza. *Primer Congreso de Estudios Vascos*. 428-239.
- : 1918. El problema de la Enseñanza en el País Vasco. *Primer Congreso de Estudios Vascos*. Bilbo: Eusko Ikaskuntza.
- : 1918. *La lucha por el idioma propio*. Bilbo: Junta de Cultura Vasca.
- ELEIZALDE, Luis; EIZAGIRRE, José eta LOPEZ-MENDIZABAL, Ixaka (Euzko Jeltzaleen izenean): 1916. *Rapport de la Délégation Basque (versión en castellano)*. Lausanne: Imprimerie Vaudoise. TROISIEME CONFERENCE DES NATIONALITES. Lausanne, Juin 1916.
- ELKARLANEAN: 1922. *Lenengo (1921eko) Euskalegunetako Itzaldia*. Euskaltzaindia. Bilbo: Euzko-Argitaldaria.
- ESTORNES ZUBIZARRETA, Idoia: 1983. *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- ETCHEPARE, Jean: Ikus CHARRITTON, 1984.
- ETXAIDE, Yon: 1986. *Ignacio Maria Etxaide*. Donostia: Erein.
- ETXEARRIA, J. et al.: 1985. *Euskal testuen azterbideak. Literatura II*. Bilbo: Labayru ikastegia.
- : 1986. *Euskal Literatura Urratzen. Literatura III*. Bilbo: Labayru ikastegia.
- EUSKO IKASKUNTZA: 1931. La enseñanza en el País Vasco. Escrito que la SEV dirige a las Diputaciones. *LA TARDE*: 15-5-1931.
- FERGUSON, Charles A.: 1959. Diglossia. *Word*, XV, 325-340.
- FISHMAN, Joshua A.: 1966. *Language Loyalty in the United States*. The Hague: Mouton.
- : 1972. *Language and Nationalism. Two Integrative Essays*. Rowley, Massachusetts: Newbury House.
- : 1987. Reflections on the Current State of Language Planning. In *Proceedings of the International Colloquium on Language Planning*. Quebec: CIRB.
- FISHMAN, Joshua A. et al.: 1985. *The Rise and Fall of the Ethnic Revival*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- FUSI, Juan Pablo: 1984. *El País Vasco. Pluralismo y nacionalidad*. Madrid: Alianza Editorial.
- GARAI, Luis de: 1934. La vida del euzkera. *Euzkerea* VI. II. 132-144.

- GARCIA DE CORTAZAR, Fernando eta MONTERO, Manuel: 1980. *Historia contemporánea del País Vasco. De las Cortes de Cádiz al Estatuto de Guernica*. Donostia: Txertoa.
- GASCUE, F.: 1908. El renacimiento del vascuence. *Euskal-erria* 1908-X-15.
- GELLNER, Ernst.: 1964. *Thought and Change*. Chicago: University of Chicago Press.
- GILES, H., R. Y. BOURHIS eta D. M. TAYLOR: 1977. Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations, in H. Giles ed. *Language, Ethnicity and Intergroup Relations*. London: Academic Press.
- G. tarr A.: 8-VII-1905. La escuela en Euskadi. *PATRIA*, III. 10.
- HAUGEN, Einar: 1966. Dialect, Language, Nation. *American Anthropologist* LXVIII, 922-935.
- : 1983. The Implementation of Corpus Planning: Theory and Practice, in J. Cobarrubias eta J. A. Fishman eds., *Progress in Language Planning*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- HERNANDEZ, José Luis: 1986. La Población de la Comunidad Autónoma del País Vasco hoy y perspectivas de futuro. *Euskal-Herria Presente y Futuro*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitarapen Zerbitzua.
- HIRIART-URRUTY, Jean: 1902. Bizia ala eskuara? *Eskualduna*, 1902-X-24.
- : 1909. Dugun atxik eskuara. *Eskualduna*. Erabilitako iturria: *Mintzaira, Aurpegia, Gizon*. Arantzazu: Jakin. 1971. 195-221.
- IBERO, Evangelista: 1906. *Ami vasco*. Hirugarren argitaraldia 1957an. Buenos Aires: Ekin.
- ISAJIW, Wsevolod W.: 1974. Definitions of ethnicity. *Ethnicity*, I. III.124.
- JACOBSON, Roman: 1945. *The beginnings of national self-determination in Europe*. "Review of Politics", 2. 29-42.
- JERNUDD, BJÖRN eta Jiri V. NEUSTUPNY: 1987. Language planning: for whom? In *Proceedings of the International Colloquium on Language Planning*, 69-84 orr. Quebec: CIRB.
- JUARISTI, Jon: 1987. *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*. Madrid: Taurus ediciones.
- KEDOURIE, Elie: 1966. (1974). *Nationalism*. London: Hutchinson. Gaztelaniaz: *Nacionalismo*. Madrid: Centro de Estudios Constitucionales.
- KEPA: 1932. ¿Dejará el pueblo euzkeldun de serlo? *EUZKEREA*: IV.15.zkia. 215.
- KLOSS, Heinz: 1952. *Die Entwicklung Neuer Germanischer Kultursprachen*. München: Pohl.
- KOLARZ, W.: 1946. *Myths and Realities in Eastern Europe*. London: Lindsay-Drummond.
- LABAYEN, Antonio María: 1937. Euskadi y su doble carácter nacionalitario y minoritario. *Euzko Deya* 1937-I-14.
- : 1965. *Teatro euskaro. Notas para una historia de arte dramático vasco*. Donostia: Auñamendi.
- LABORDE, Pierre: 1970. L'appropriation foncière des Parisiens dans une région de villégiature, la côte basque-française. *REVUE GEOGRAPHIQUE DES PYRENEES*, XLI. 29-42.
- LANDETA, Eduardo: 1917. El problema bizcitarra. *HERMES*, 5. 326-331.
- : 1918. Estado actual de la Escuela en el País Vasco. *Primer Congreso de Estudios Vascos*. Bilbo: Eusko Ikaskuntza.
- : 1923. *Los errores del nacionalismo vasco y sus remedios*. Bilbao.
- : 1933. El bilingüismo en la enseñanza internacional y en Euskadi. *YAKINTZA*, 6. 440.
- LARRONDE, Jean Claude: 1979. Orígenes del nacionalismo vasco: Sabino Arana Goiri. *Historia del Pueblo Vasco III*. 189-222. Donostia: Erein.
- LIEBERSON, T. J. Curry: 1971. Language shift in the United States. Some demographic clues. *International Migration Reviews*, 1971, 5. 125-137.
- LORD ACTON: 1907. *Nationality, the History of freedom and other Essays*. Londres: Macmillan. Artikularen jatorrizko argitalpena 1862ko uztailean, in *Home and Foreign Review*.
- MACKEY, William F.: 1978. *L'irrédentisme linguistique: une enquête témoin*. Quebec: CIRB.
- : 1983. U.S. Language Status Policy and the Canadian Experience. In J. Cobarrubias eta J. A. Fishman (eds.) *Progress in Language Planning*. Berlin: Mouton.
- MANTEROLA, José: 1977. 78-80 *Cancionero Vasco (azkena Basco)*. Donostia: Juan Osés (azkena Casa Baroja).
- MARTINEZ CUADRADO, Miguel: *La burguesía conservadora (1874-1931). Historia de España Alfaguara VI*. Madrid: Alianza Editorial.
- MEILLET, A.: 1918. *Les langues dans l'Europe nouvelle*. Paris: Payot.

- MICHELENA, Luis: 1960. *Historia de la Literatura Vasca*. Madrid: Minotauro.
- : 1971. Urquijo y la Sociedad de Estudios Vascos. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, V. 47-66. Donostia: Gipuzkoako Aldundia.
- : 1978. Euskararen bide luze bezain malkarrak. *Euskararen Liburu Zuria*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- : 1985. *Lengua e Historia*. Madrid: Paraninfo.
- MOKOROA, Justo (Ibar): 1935. *Genio y Lengua*. Tolosa.
- MOMMSEN, Wolfgang J.: 1971. La época del imperialismo. Europa 1885-1918. Madrid: Siglo XXI.
- MUJIKA, Gregorio: *Los titanes de la cultura vasca*. Donostia: Auñamendi.
- : 1907. Euskeraren alde. *RIEV*, I, 544-7.
- MUGICA, Mateo: 1932a. *Sobre la enseñanza religiosa de los niños*. "Circular del Boletín Oficial del Obispado de Vitoria": 68.zkia. 1932ko otsailaren 8a.
- : 1932b. *Exhortación Pastoral sobre las Escuelas Católicas (9 de Octubre)*. "Boletín Oficial del Obispado de Vitoria", 1932ko urriaren 25a. 537-552.
- NAGORE, Daniel: 1914. *Nacionalidad. Nacionalismo. Partido Nacionalista*. Iruñea: Serafin Argai.
- OLANO, Aniceto (Miguel de Alzo): 1935. Bilingüismo. Métodos a emplear en la enseñanza del euzkera a los niños vasco-erdaldunes. El derecho a la instrucción primaria en la lengua materna ante el Derecho Internacional Positivo. *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*. Donostia: Euskaltzaleak.
- ONAINDIA, Santiago: 1974, 7. *Euskal Literatura*. Bilbo: Etor.
- OTAEGI, Lurdes: 1983. Aitzolen projektu kulturalaz. *Jakin*, 29, 18-27.
- PAYNE, Stanley G.: 1974. *El Nacionalismo Vasco. De sus orígenes a la ETA*. Barcelona: Dopesa.
- SARASOLA, Ibon: 1976. *Historia Social de la Literatura Vasca*. Madrid: Akal.
- SARRIA, Jesús de: 1918. *Ideología del nacionalismo vasco*. Bilbao: E. Verdes.
- SMITH, Anthony D.: 1971. *Theories of Nationalism*. London: Gerald Duckworth.
- SOLOZABAL, Juan José: 1979. *El primer Nacionalismo Vasco. Industrialismo y Conciencia Nacional*. Donostia: L. Haranburu.
- THALAMAS-LABANDIBAR, Juan: 1935. *Aspectos de la vida profesional vasca. Primera parte: la vida pastoril y agraria*. Zarautz: Itxaropena.
- TORREALDAY, Juan Mari: 1977. *Euskal Idazleak gaur*. Oñati-Arantzazu: Jakin.
- TOVAR, Antonio: 1980. *Mitología e ideología sobre la Lengua Vasca*. Madrid: Alianza Editorial.
- UGALDE, Martín: 1966. *Unamuno y el Vascuence*. Buenos Aires: Ekin. Erabilitako argitalpen-iturria: 1979. Donostia: Ediciones Vascas.
- UNAMUNO, Miguel: 1966. *Obras completas*. Ed. Manuel García Blanco. Madrid: Escelicer. 8 liburuki.
- URQUIJO, Julio: 1918. *Estado actual de los estudios relativos a la Lengua Vasca*. Bilbo: Elexpuru. Orobat in "Actas del Primer Congreso de Estudios Vascos". 403-427. Bilbo: Eusko Ikaskuntza.
- : 1920. *Lengua internacional y lenguas nacionales. El euskera lengua de civilización*. Bilbo: Junta de Cultura Vasca.
- VILLASANTE, Luis: 1961. *Historia de la Literatura Vasca*. Arantzazu: EFA.
- WEINREICH, Uriel: 1953. *Languages in Contact*. New York: Linguistic Circle of New York. Erabilitako argitalpen-iturria: *Sprachen in Kontakt*. München: Beck (1977).
- ZABALA-ARANA, Jose (Nabaiztaña): 1934. "La vida del Euskera". Altube'ta' Seber Jaunari. *Euzkerea*, VI. II. 89-93.
- ZINKUNEGI, José: 1928. Kirolak, ongile ala kaltegarri. *Euskal Esnalea*, V.
- ZNANIECKI, Florian: 1952. *Modern Nationalities*. Urbana: Univ. of Illinois Press.
- ZUBIALDE, Ignacio: 1917. El nacionalismo musical y la música vasca. *Hermes*, 316-9.